

EAEkoekonomiaren hiruhilabetekaria

2018ko 4. hiruhilekoa

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

OGASUN ETA EKONOMIA
SAILA
Ekonomia eta Planifikazio Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE HACIENDA
Y ECONOMÍA
Dirección de Economía y Planificación

LABURPENA

EAEko ekonomia %2,4 hazi zen laugarren hiruhilekoan eta %2,8ko gehikuntza tasa eskuratu zuen 2018ko urtean, hots, aurreko urtean baino hamarren bakar bat gutxiago. Urteko batez besteko tasa horien egonkortasuna hiruhilekoko bilakaera ezberdinarekin lortu zen. Izan ere, 2018ko lehen hiruhilekoan BPGaren urte arteko hazkunde tasa %3,1 izan zen bitartean, iazko azken laurdenean gorago aipatu den %2,4 hura jaso zuen, denbora horretan zazpi hamarreneko moteltzea erakutsiz. Apaltzeko joera hori Europar Batasunean bizi dena baino zertxobait txikiagoa da, eremu hori urte hasieran %2,4 haztetik azken hiruhilekoko %1,4ra igaro baitzen. Datuak are okerragoak dira Alemanian (%2,1etik %0,6ra murriztu zen) eta Frantzian (%2,2tik %0,9ra gutxitu zen). Espainia ez da salbuespena eta sei hamarrenetan moteldu du bere hazkunde tasa, %2,9tik %2,3ra.

Kanpo sektoreak paper garrantzitsua jokatu du 2018ko moteltzean, zeren eta urte hasieran hamarren bateko ekarpen positiboa egin baitzion hazkundeari, baina urte amaieran hiru hamarren kendu zizkion BPGari. Lau hamarrenetako alde horrek ekonomiak pairatu zuen moteltzearen erdia baino gehiago azaltzen du. Merkataritza harremanetan sortu zen ziurgabetasuna nabaria zen bigarren eta hirugarren hiruhilekoetan, baina urte amaieran areagotu zen. Epealdi horretan, esportazioak %0,3 baino ez ziren hazi eta inportazioak, berriz, %0,6.

Hala eta guztiz ere, barne eskariak (%2,6) hamarren batean hobetu zuen hirugarren hiruhilekoko datua eta epealdi hartako apaltzeari galga jarri zion. Agregatu horren bi osagaiek urte arteko balio zertxobait altuagoak eskuratu zituzten. Alde batetik, azken kontsumoa %2,2 hazi zen eta, beste aldetik, kapital eraketa gordinak %4,1eko hobekuntza izan zuen urte arteko tasan. Azken aldagai horretan, azpimarragarria da gainontzeko inbertsioak (%5,2), eraikuntza barnean baitauka, ekipamendurako ondasunetan eginiko inbertsioari (%2,1) txanda hartu diola, azken hori nolabaiteko nekea erakusten duelako, lau urtez jarraian gorakada handiak batu ondoren.

Azken kontsumoaren hobekuntza kontsumo pribatuaren bultzada handiago (%2,6) batean oinarritu zen, aurreko datuaren aldean hiru hamarrenetan bizkortu baitzen. Beraz, oraingoz behintzat, aurreko hiruhilekoetako moteltzea galgatu zuen. Enplegu sorreraren sendotasunak bide ematen dio familien kontsumoari indartsu hazteko. Beste aldetik, kontsumo publikoak beheranzko joera erakutsi zuen urte osoan zehar, laugarren hiruhilekoan %0,8ko gehikuntza jaso arte. Dena dela, aldagai horrek gorabehera handiak izaten ditu.

Eskariaren aldetik, BPGaren apaltzearen jatorria industriaren hiruhilekoko bilakaeran datza, pisu handia duten gainontzeko bi sektoreek aurreko emaitzari eutsi edo berauek gainditu zituztelako.

Zehazkiago adierazita, industriak bizitasun azpimarragarriarekin (%3,9) ekin zion urteari, baina indarra galdu zuen hiruhilekoz hiruhileko eta balio erantsia galdu zuen (%-0,2) laugarren hiruhilekoan. Bilakaera hori ez da EAEko industrian bakarrik gertatu, Europako gainontzeko ekonomietan ere ikusten baita, batez ere automobilgintzak pisu handia duen horietan. Eraikuntzak nabarmen areagotu zuen bere erritmoa urte amaieran %5,6ko gehikuntza tasa eskuratu arte. Beste aldetik, zerbitzuen tasak egonkorrak izan ziren eta %2,9 hazi ziren bai laugarren hiruhilekoan bai 2018ko batez bestekoan. Egonkortasun hori ageriagoa da merkataritza, ostalaritza eta garraioa (%3,0) biltzen dituen taldean eta gainontzeko zerbitzuak (%3,1) delakoan.

Ekoizpenaren moteltzea ez da gehiegi nabaritu lan merkatuaren aldagaietan. Izan ere, enplegua %2,0 handitu zen iazko laugarren hiruhilekoan eta %2,1, berriz, urteko batez bestekoan, 2017ko emaitza berdinduz. Horri esker, 2018ko laugarren hiruhilekoan, lanaldi osoko 18.500 lanpostu baliokide gehiago zeuden 2017ko epealdi berean baino. Industriaren balio erantsia gutxitu zen arren, sektore horrek 3.000 lanpostu ekarri zizkion ekonomiari, eraikuntzak lortu zituenak (2.400) baino zertxobait gehiago. Hala eta guztiz ere, zerbitzuak dira enplegu berri gehiena (12.700) sortu dutenak.

Prezioei dagokienez, aurreko epealdietan hauteman zen tentsiorik ezak bere horretan jarraitu zuen eta BPGaren deflatorea %0,7 igo zen laugarren hiruhilekoan, hots, aurreko lau hiruhilekoetan baino gutxiago. Kontsumoko prezioek ere hazkundera apaldu zuten eta %1,0an kokatu ziren bai 2018ko abenduan bai 2019ko urtarrilean, nahiz eta otsailean %1,3ra igo. Petrolioak iazko azken hilekoetan izan zuen merkatzeak azaltzen du, neurri handi batean, moteltze hori. Inflazioaren gune egonkorrak, azpiko inflazioa delakoak, %0,7ko tasa txikian ekin dio 2019ko urteari, prezioen igoera orokorra bizitzeko arriskua urruntzen duena. Hondar inflazioa %2,4 hazi zen, tasak apaltzeko prozesu garbi batean.


Eskuragarri dagoen inguruneko informazioak eta laugarren hiruhilekoko kontu ekonomikoen argitaratzeak aukera ematen dute EAEko ekonomiaren 2019rako eta datorren urterako hazkunde aurreikuspenak eguneratzeko. Orain kalkulatu da BPGa %2,2 haziko dela aurtun, abenduan espero zena baino hamarren bat gutxiago. Barne eskariak bizitasunari eutsiko dio, baina inguruneko ziurgabetasunaren ondorioz, orain zenbatetsi den kanpo eskariaren ekarpena lehen uste zena baino negatiboagoa da. Orobat, industria arloaren aurreikuspena ezkorragoa da orain eta azken hilekoetan jaso diren emaitza txarrak iragankorrak izango direla pentsatzen bada ere, sektorearen urteko emaitza kaltetuko dute. Hiruhilekoz hiruhileko, 2019ko moteltzea galgatuko da eta 2020ko batez bestekoan hazkundera %2,0an kokatuko da, aurreko urtekoa baino bi hamarren bakarrik beherago. Enpleguaren atalean, lanaldi osoko lanpostu baliokideen kopurua 2019an %1,5 eta 2020an %1,3 haziko dela aurreikusten da, ekonomiaren guztizkoari 14.800 enplegu gehituz 2019an eta beste 12.500 datorren urtean.

EKONOMIAREN INGURUNEA


Iazko azken laurdenean, munduko ekonomia berriro moteldu zen zertxobait, ziurgabetasun geopolitikoak eta azaleratzen ari diren ekonomietan kalteberatasunak nagusi ziren testuinguru batean. Nazioarteko merkataritzak indarra galdu zuen, konpondu gabeko merkataritza liskarrei lotutako arriskuak oraindik altuak zirelako. Oro har, finantzaziorako baldintzak oraindik onak diren arren, hazkunde globalaren bizitasun motelagoak burtsa merkatuetako lurrunkortasuna handitu zuen. Dena dela, lehen zenbatespenek munduko ekonomia %3,7aren inguruan kokatu zela 2018an aurreikusten dute, 2017ko %3,8 hartatik hurbil.

Munduko ekonomia. BPGa Urte arteko hazkunde tasak


AEB




Europar Batasuna



Txina



Brasil



Iturria: Eurostat eta ELGE.

Testuinguru horretan, azaleratzen ari diren ekonomia nagusiek portaera ezberdinak erakutsi zituzten, herrialde bakoitzeko faktore idiosinkrasikoek baldintzatuta. Izan ere, Peruren (%4,8), Txileren (%3,3) edo Kolonbiaren (%2,9) bizitasun handiarekin batera, Argentinaren atzeraldi sakona eta Brasilen susperraldi espero baino geldoagoa gertatu ziren. Herrialde horretan, kontsumo pribatuak bizitasun handiagoa erakutsi zuen arren, kontsumo publikoaren beste murrizketa batek eta inbertsioaren apaltzeak bertan behera utzi zuten iazko hirugarren hiruhilekoan hasi zen goranzko joera. 2018ko bigarren hiruhilekoan, maiatzeko lan gatazkek kalte egin zioten hazkundeari, baina laugarren hiruhilekoan ez da kanpoko faktorerik egon ekonomia baldintzatzen. Beraz, apaltze berri horrek zalantzan jartzen du Brasileko susperraldia. Mexiko, berriz, kaltetuta atera zen AEBekin negoziatu duen merkataritza akordio berriak eragin dituen tentsioengatik eta herrialde horretako ekonomia jarduerak indarra galdu zuen azken hiruhilekoan, %1,8an kokatu arte, hots, urte bereko lehen hiruhilekoan jasotako emaitza (%3,1) baino 1,3 ehuneko puntu beherago.

Asian, Txinak bizitasuna galdu zuen berriro 2018ko laugarren hiruhilekoan eta agerian utzi zuen asiar erraldoiaren moteltzea, hiru hiruhilekoz jarraian tasa txikiagoak lortu eta gero. Hain zuzen ere, Txinako BPGa %6,4an kokatu zen, uztailetik irailera bitartean jaso zuen emaitzaren hamarren bat beherago, eta 2009ko lehen hiruhilekotik eskuratu duen daturik txikiena bilduz. Halere, bizitasun motelago horren eragilea ez zen bakarrik AEBekin duen merkataritza gerra. Esportazioen jaitzierari inbertsio ahulak gehitu zitzaizkion, barne eskaria beherantz bultzatu baitzuten, hori baita ekonomia txinatarraren beharrezko aldaketaren habeetako bat. Indiak, berriz, %7,3ko hazkundea erakutsi zuen 2018ko urtean. BPGaren gorakada hori esanguratsua da, baina gehikuntza tasak gehiagotik gutxiagora joan ziren urtea aurrera zihoazen neurrian. Izan ere, laugarren hiruhilekoan BPGa %6,8an kokatu zen, bigarrenen %7,9ko emaitza jaso eta gero. Bizitasun apalago hori gastu publiko txikiagoak eragin zuen, bai kontsumo pribatuak (%8,5) bai inbertsioak (%10,4) sendo jarraitu zutelako.

Herrialde garatuei dagokienez, oro har %1,8 hazi ziren, hots, aurreko hiruhilekoan baino lau hamarren gutxiago. Beste hiruhileko batez, AEBek erakutsi zuten sendotasuna nabarmendu zen, bertako administrazioa itxi bazen ere eta Txinarekiko daukan merkataritza politikak ziurgabetasuna ekarri duen arren. Ekonomia aurreratuen artean, AEBek bakarrik lortu zuten goranzko joerari eustea urte osoan zehar. Hain zuzen ere, AEBak %3,0 aipagarria hazi ziren 2018ko laugarren hiruhilekoan, aurreko hiruhilekoan lortutakoa beste eta 2015etik inoiz izan duen emaitzarik onena. Bizitasun horren oinarrian, lan merkatuaren sendotasuna dago, enplegu beteko egoeran jarraitzen baitu, eta baita 2017ko amaieran onartu zen bultzada fiskala ere, kontsumoa eta inbertsio pribatua gorarazi baitzuten. Izan ere, barne eskariaren bi osagai horiek 2,7 puntu ekarri zizkieten jarduerari, kanpo arloak kendu zituen bi hamarrenak luze konpentsatuz. Kenketa hori inportazioen bultzada handiagoak azaltzen du.

Bilakaera hedakor horretatik oso urrun kokatu zen Japonia, iazko azken laurdenean BPGa %0,3 baino ez baitzen hazi. Gehikuntza xume hori hirugarren hiruhilekoan jasotakoaren (%0,2) antzekoa da, baina garai horretan ekaitz bortitzek eta lurrikarek herrialde hartako lantegiak gelditzera behartu zuten, ekonomia jarduera geldiatuz. Erakunde nagusiek aurreikusi zuten urteko azken hiruhilekoan hazkunde tasa sendoagoak berreskuratuko zirela, baina BPGaren gorakada apal horrek iradokitzen du aurreko hiruhilekoan gertatu zena ez zela bakarrik natura hondamendiak ekarritako moteltze iragankorra izan, baizik eta arazo sakonago bat dagoela atzean. Izan ere, kontsumo pribatua %0,6 hazi zen, hots, aurreko emaitza baino gutxiago, eta hiru hamarren bakarrik ekarri zizkion jarduerari. Kanpo arloak, ordea, bost hamarren kendu zizkion BPGaren gehikuntzari, esportazioen ahultasunaren ondorioz. Bilakaera positiboa inbertsio pribatuak eta lan merkatuak bakarrik erakutsi zuten. Lehenengoak hazkunde tasa positiboak berreskuratu zituen eta lan merkatuan, langabezia tasa %2,4ra murriztu zen 2018an, azken 26 urteko mailarik txikiena baita.

Europar Batasunean, ekonomia jarduera berriro moteldu zen eta laugarren hiruhilekoan BPGaren hazkunde tasa %1,4an kokatu zen, aurreko emaitza baino lau hamarren gutxiago eta 2017ko epealdi berean jasotako balioa baino 1,3 puntu gutxiago. Kontsumo pribatuaren ekarpenak aurreko hiruhilekokoa (0,8 puntu) berdindu zuen, kontsumo publikoarena handiagoa izan zen (0,3) eta inbertsioak hamarren bat gutxitu zuen bere ekarpena, puntu erdi batean utzita, edozein modutan balio garrantzitsua dena. 2018ko hirugarren hiruhilekoarekiko aldea izakinen balorazioan datza, hiru hamarrenetan gutxitu zuelako bere ekarpena. Aurreko guztiak adierazten du, oraingoz, barne eskariak portaera sendoari eusten diola, hainbat alderditan oinarrituta, hala nola finantzaziorako gaur egun dauden baldintza onak, enpleguaren bultzada eta familien zein enpresen errenten hazkundera. Beraz, bizitasun apalagoaren arrazoia kanpo eskarian datza. Zehazkiago adierazita, esportazioen ahultasuna dago moteltzearen atzean, munduko merkataritzaren apaltzeak kaltetuta. Izan ere, 2018an esportazioak pasatu dira 1,7 puntu ekartzetik 0,8 puntu ekartzera 2018an zehar. Horren ondorioz, kanpo eskariak utzi egin dio ekonomia jarduerari ekarpen positiboak egiteari eta hainbat hamarren kendu dizkio.

Herrialdeka, merkataritzako tentsioek eta beraren bazkide nagusien ahultasunak kalte handia egin zion Alemaniari, azken herrialde horretako esportazioak kaltetuz. Hain zuzen ere, esportazioak oso nabarmen moteldu ziren, baina inportazioak ia ez ziren ezer murriztu. Horren ondorioz, BPGa %0,6ra apaldu zen, 2013ko erdialdetik inoiz jaso den emaitzarik txikiena. Frantzian, txaleko horiek eragin duten gizarte tentsioak familien konfiantza apalarazi du eta kontsumo pribatua zein inbertsioa gutxitu zituen, ekonomia jarduera %0,9ra motelduz 2018ko azken laurdenean.

Italian, bertako gobernuak ageriko desadostasunak izan zituen agintari europarrekin, tentsio politikoak sortuz. Horretaz gain, barne eskaria guztiz apatikoa agertu zen. Kontsumo publikoa

murriztu zen, pribatua ia ez zen ezer aldatu aurreko hiruhilekoaren aldean eta inbertsioa gutxiagatik gainditu zuen %0,0ko langa, urtearen erdialdean %6,0 baino gehiago hazi bazen ere. Aurrekoari gehitzen bazaio Alemania eta Txina gutxiago hazi zirela, bi herrialde horiek esportazio italiarren bezero behinenak baitira, erraz ulertzen da 2018ko amaierako hazkunde hutsala. Erresuma Batuan, berriz, hazkundera kontsumo pribatuan oinarritzen da, inbertsioak ahul jarraitu zuen bitartean, Brexitari lotutako ziurgabetasunaren eragina nabarituz. Aurreko guztiaren ondorioz, 2018ko jarduera %1,3 hazi zen, urte hasieran beste.

Espainiak erritmo onean amaitu zuen urtea baina, Europako bazkide nagusiek bezala, ekonomia espainiarrak ere jarraipena eman zion 2017ko laugarren hiruhilekoan hasi zen beheranzko joerari. Hala kontsumoak nola kapital eraketa gordinak gehikuntza tasa garrantzitsuetan jarraitu zuten, indar apur bat galdu bazuten ere. Beraz, barne eskariak hamarren bat gutxiago ekarri zion BPGaren hazkunderari. Hala eta guztiz ere, esportazioen hobekuntzak kanpo arloaren ekarpen negatiboa gutxitu zuen eta BPGaren gehikuntza tasa %2,4an segitzea ahalbidetu zuen. Halere, daturik azpimarragarriena enpleguaren bilakaerarena izan zen. 2018ko amaiera arte lanaldi osoko 463.000 lanpostu sortu ziren, hots, enplegua %2,6 areagotu zen urte arteko tasan. Bosgarren urtez jarraian, Espainiak enplegua areagotu zuen. Orobat, langabezia tasak behera egin zuen eta %14,4an kokatu zen.

ESPAINIAKO EKONOMIA. TAULA MAKROEKONOMIKOA

Urte arteko aldakuntza tasa

	2017	2018	2017		2018			
			III	IV	I	II	III	IV
Azken kontsumoko gastua	2,4	2,3	2,4	2,7	2,8	2,2	2,0	2,0
- Familien gastua	2,5	2,3	2,6	2,7	3,0	2,3	2,0	2,0
- Administrazioaren gastua	1,9	2,1	2,0	2,6	2,2	2,0	2,2	2,2
Kapital finkoaren eraketa gordina	4,8	5,3	5,8	5,2	3,9	7,5	5,3	4,4
Nazio eskaria (*)	2,9	2,9	3,2	3,3	3,1	3,3	2,7	2,5
Esportazioak	5,2	2,3	5,4	4,2	3,8	2,6	1,7	1,0
Inportazioak	5,6	3,5	7,0	5,4	4,8	5,1	2,3	1,7
BPG (m.p.)	3,0	2,6	2,9	3,1	2,9	2,6	2,5	2,3
Nekazaritza eta arrantza	-0,9	2,6	-0,8	0,4	2,8	4,8	-0,5	3,6
Industria	4,4	1,1	4,0	4,9	2,6	2,0	1,1	-1,3
Eraikuntza	6,2	7,6	6,0	6,8	7,5	7,5	8,1	7,2
Zerbitzuak	2,5	2,7	2,5	2,5	2,6	2,5	2,7	3,0
Produktuen gaineko zerga garbiak	3,3	1,4	3,1	2,7	3,0	1,0	0,9	0,9

Oinarri urtea: 2010. (*) BPGaren hazkunderari eginiko ekarpena.
Iturria: Espainiako Estatistika Erakundera (INE).

EAE-KO EKONOMIA

Ekoizpena eta enplegua

EAEko ekonomia %2,4 hazi zen 2018ko laugarren hiruhilekoan eta %2,8 areagotu zen urte osoko batez bestekoan. Tasa hori 2017an lortutakoa baino hamarren bakar bat txikiagoa da. Bi urte horietako bilakaeran ustez gertatu den egonkortasunak 2018an zehar bizi zen moteltzea ezkututzen du. Izan ere, urte horretako hasieran, urte arteko aldakuntza tasa %3,1 izan zen, baina laugarren hiruhilekoan %2,4an kokatu zen, jadanik adierazi den bezala. EAEko ekonomiak pairatu duen erritmo galera Europar Batasunarena baino zertxobait txikiagoa izan da, azken lurralde hori lehen hiruhilekoko %2,4tik laugarreneko %1,4ra igaro zelako. Are biziagoa izan zen Euroguneko bi herrialde nagusien apaltzea. Zehatz-mehatz adierazita, Alemaniak %2,1etik %0,6ra bitartean galgatu zuen bere bizitasuna urtean zehar. Frantzia, berriz, %2,2tik %0,9ra igaro zen denbora horretan. Joera horretatik urrun kokatu zen ekonomia espainiarra, bigarren seihilekoan hazkunde egonkorra lortuz.

ESKAINTZAREN ALDAGAIAK

Urte arteko aldakuntza tasak

	2017	2018	2017		2018		
			IV	I	II	III	IV
BPG erreala	2,9	2,8	3,0	3,1	2,9	2,6	2,4
Nekazaritza eta arrantza	6,8	2,3	-2,7	-3,0	0,8	-4,6	17,1
Industria eta energia	3,1	2,1	3,5	3,7	3,1	1,9	-0,2
- Manufakturen industria	3,2	2,2	3,4	3,9	3,1	2,0	-0,1
Eraikuntza	3,8	4,3	4,0	2,7	4,1	4,8	5,6
Zerbitzuak	2,7	2,9	2,7	3,1	2,8	2,7	2,9
- Merkataritza, ostalaritza eta garraioa	4,0	2,8	3,6	3,1	2,7	2,5	3,0
- AA. PP., hezkuntza eta osasuna	2,2	2,4	2,4	2,9	2,3	2,1	2,2
- Gainontzeko zerbitzuak	2,2	3,1	2,3	3,1	3,0	3,2	3,1
Balio erantsi gordina	2,9	2,8	2,9	3,1	2,9	2,6	2,4
Ekoizkinen gaineko zerga garbiak	2,8	2,7	3,3	3,1	2,8	2,6	2,5

Iturria: Eustat.

BPGaren moteltzea industriaren eskutik iritsi da, urte hasieran beraren balio erantsia %3,7 esanguratsua hazi baitzen, baina iazko azken laurdenean %0,2ko jaitsiera txikia jaso zuen, apaltze iraunkor batean. Industria jardueraren hozte hori Europako herrialde nagusietan ere

gauzatu zen. Bilakaera txar horren atzean dauden arrazoia nagusietako batzuk hauek dira: AEBek, batez ere Txinarekiko merkataritza defizita murrizteko, ezarri zituen neurri protekzionistak, Erresuma Batua Europar Batasunetik irteteko akordio falta eta automobilgintza alorrean indarrean sartu zen isurien araudi berria, ekoizpen kateetan doikuntzak behar izan zituen. Aurreko guztiak ziurgabetasuneko giroa ekarri du, nazioarteko merkataritzari, ekonomia eragileen igurikimenei, inbertsioari eta industria ekoizpenari kalte egin diena.

JARDUERA ADIERAZLEAK

Urte arteko aldakuntza tasak

	2017	2018	2017		2018		
			IV	I	II	III	IV
Industria							
Industria produkzioaren indizea	3,0	1,2	3,7	3,5	2,3	0,5	-1,5
Negozio zifren indizea	9,4	5,7	9,5	7,0	11,3	7,4	-1,5
Eskarien sarrera	6,5	4,3	11,6	7,7	5,6	1,7	4,8
Gizarte Segurantzako afiliazioa	1,8	1,8	1,7	1,9	1,9	1,9	1,3
Eraikuntza							
Eraikuntzaren koiuntura indizea	5,9	12,5	6,4	6,7	13,7	13,9	15,3
Etxebizitza berrietarako bisatuak	26,7	20,3	25,9	-5,9	88,5	16,7	3,6
Etxebizitzaren salerosketak	11,4	9,0	10,6	9,4	5,1	10,3	11,9
Gizarte Segurantzako afiliazioa	1,8	3,6	2,0	2,7	3,4	4,0	4,3
Zerbitzuak							
Hegazkinen bidezko bidaiariak	9,2	10,5	14,2	11,7	9,6	10,3	10,8
Hoteletan igarotako gaualdiak	2,6	7,2	2,7	9,3	5,7	5,9	9,4
Negozio zifren indizea	4,4	7,4	5,2	7,5	7,8	9,1	5,5
Zerbitzuen koiuntura indizea	1,8	1,8	2,0	2,6	2,1	1,3	1,0
Gizarte Segurantzako afiliazioa	2,2	2,1	2,2	2,4	2,1	1,7	2,0

Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak egina, Eustat, INE, Sustapen Ministerio, Gizarte Segurantzaren eta AENAREN datuetan oinarrituta.

Industriaren balio erantsiaren jaitsiera iragarria zuen sektorearen koiuntura adierazle nagusi batzuen bilakaera negatiboak. Izan ere, industria produkzioaren indizeak (IPI) moteltze bizia erakutsi zuen iazko urtean zehar, laugarren hiruhilekoan %-1,5eko urte arteko tasa bat jaso arte. Azaroko datuak (%-1,0) jadanik sektorearen ahultasuna adierazten zuen arren, abenduko emaitzak (%-6,3) beherakada areagotu zuen urteetan ezagutu gabeko balioetara eramanez. Zorionez, urtarrilean (%0,7) igoerak itzuli ziren eta itxaropena badago aldi txar iragankorra izango dela. Beste faktore batzuen artean, Mercedes Benz lantegia, isurien araudi berriak ekarri dituen

desoreken ondorioz, hainbat egunetan itxita egoteak baldintzatu du beheranzko joera garrantzitsu hori.

IPIa ondasunen helmuga ekonomikoaren arabera aztertzen bada, agerian geratzen da industriaren jaitsiera ez dela homoginoa eta adierazlea osatzen duten lau taldeetatik bitan gauzatu dela. Alde batetik, ekipamendurako ondasunek, furgonetak multzo horretan baitaude, %3,3 murriztu zuten ekoizpena laugarren hiruhilekoan, baina zertxobait suspertu ziren urtarrilean (%1,1). Beste aldetik, bitarteko ondasunek, automobilgintzako osagaiak barnean hartzen baitituzte, %-2,3 jaso zuten laugarren hiruhilekoan, urtarrilean hobekuntza (%1,0) lortuta. Hala ere, kontsumoko ondasunek (%2,7) eta energia ekoizpenak (%0,6) beren emaitzak hobetu zituzten aurreko hiruhilekoaren aldean, nahiz eta jaitsiera txikiak eskuratu zituzten urtarrilean.

Une hauetan eraikuntza da sektore dinamikoena, laugarren hiruhilekoan bere balio erantsia %5,6 esanguratsua handituta. Tasa hori 2007tik jaso duen altuena da. Jardueraren bultzada eraikinen ataletik iritsi zaio, obra zibilak ahultasuneko zantzuak erakusten duen bitartean. Izan ere, Eustatek argitaratzen duen eraikuntzaren koiuntura indizeak %17,3an kokatu du eraikinen ataleko gehikuntza tasa, obra zibilak %-1,0ko datua jaso duen bitartean, nahiz eta azken honek urte hasieran bi zenbakiko tasak lortu zituen. Etxebizitzen salerosketaren bultzadak (%11,9) azaltzen du, neurri handi batean, eraikinen ataleko sendotasuna.

Zerbitzuek egonkortasuneko irudia eskaini zuten berriro, gorabehera txiki batzuekin, eta balio erantsiaren igoera %2,9ra eramán zuten, hala laugarren hiruhilekoan nola 2018ko batez bestekoan. Sektorea osatzen duten hiru blokeek gehikuntza tasa garrantzitsuak eskuratu zituzten, merkatuko jardueretan are biziagoak izan zirenak. Zehazkiago adierazita, merkataritza, ostalaritza eta garraioa biltzen dituen taldea %3,0 hazi zen laugarren hiruhilekoan, hots aurreko hiruhilekoan baino puntu erdi bat gehiago. *Gainontzeko zerbitzuak* delakoak (%3,1), berriz, hamarren bakar bat aldatu zuen aurreko epealdietako emaitza. Azkenik, arlo publikoari lotuago dauden jarduerak egonkortasuna erakutsi zuten azken hiru hiruhilekoetan, %2,2aren inguruko emaitzak jasota.


Zerbitzuetako koiuntura indizeak adierazten du sektoreak 2018an aurreko urteko erritmo bertsuan hazi zela. Hala ere, estatistika horrek agerian uzten du urtean zehar moteltze arina gauzatu zela, berau osatzen duten bi jarduera taldeek eraginda, baina bereziki *gainontzeko zerbitzuak* izenekoak. Zehazkiago adierazita, merkataritzak (%1,3) oraindik sendotasun handia erakusten du, motordun ibilgailuen salmentari (%1,1) eta txikizkako merkataritzari (%3,3) esker. Gainontzeko zerbitzuetatik, garraioaren eta biltegiatzearen (%3,9) bizitasuna nabarmendu da, gainontzeko jarduerak ekoizpena gutxitu zuten bitartean. Horixe da ostalaritzaren (%-1,1) eta informazioa eta komunikazioak (%-1,9) atalen kasua.

Zerbitzuen negozio zifrak iradokitzen du bilakaera ona izan duela urte osoan zehar, 2017koa baino hobea, baina azken hiruhilekoan bizitasun pixka bat galdu duela (%5,5). Turismoaren alorreko estatistikek jarduera horren bilakaera ona baieztatzen dute, gaurdiak laugarren hiruhilekoan (%9,4) areagotu baitziren, aurreko epealdietan baino gehiago. Orobat, hegazkinez bidaiatu zuten pertsonen kopurua 6 milioietara hurbildu zen urte osoko batuketan, inoizko altuena, laugarren hiruhilekoan %10,8ko igoera bat eskuratuta.


BPGaren apaltzea ez da osorik igaro enplegu sorrerara, oraindik bilakaera sendoa erakusten duelako. Urteko batez bestekoan, 2018ko gehikuntza tasak aurreko urtekoa (%2,1) berdindu zuen eta hiruhileko batetik hurrengora hauteman zen apaltzea hamarren bakar batekoa izan zen, urteko bigarren erdian egonkortasuna erakutsiz. Horri esker, lanaldi osoko lanpostu baliokideen kopurua 2017ko laugarren hiruhilekokoa baino 18.500 lagun handiagoa izan zen, guztira 964.500 enplegu daudela. BPGaren eta enpleguaren konbinaketak iradokitzen du itxurazko produktibitatearen irabazia berriro gutxitu zela, kasu horretan bost hamarretara, aldagai horren balio historikoa ehuneko puntu baten inguruan dagoenean.

Enpleguaren bilakaera Urte arteko aldakuntza tasak

Kontu ekonomikoak



Afiliazioa



Iturria: Eustat eta Gizarte Segurantzza

Ohikoa denez, enplegu berri horietako gehienak zerbitzuetan sortu ziren (%1,9), EAEko ekonomiari 12.700 lanpostu garbi ekarri zizkiotelako. Hala eta guztiz ere, ehunekotan, gehikuntza handiena eraikuntzarena izan zen (%4,1), bizitasun handiko une gozo bat bizi baitu. Dena dela,

sektore horrek gaur egun daukan 60.000 langileko kopurua oso urrun dago oraindik krisiaren aurretik zeuzkan 100.000 haietatik. Azkenik, industriaren balio erantsiak nozitu zuen jaitsiera ez zen oztopoa izan sektoreak pertsona gehiago (%1,5) kontratatzen jarraitzeko, erritmoa galgatu badu ere.

Eskuragarri dagoen 2019ko hasierako informazioak seinalatzen duenez, lanpostuen sorrera oso astiro moteltzen ari da eta, Gizarte Segurantzako afiliazioaren arabera, urtarrileko eta otsaileko batez bestekoa %1,8an kokatu zen. Estatistika iturri horrek baieztatzen du eraikuntzak aurreko sendotasun handiari eusten diola langile gehiago kontratatzeko orduan (otsailean %4,0ko gehikuntza izan zuen). Beste aldetik, manufakturen industriak bere aldakuntza tasa apaldu du, baina oraindik %1,0ko langa gainditu zuen bi hileko horietan. Zerbitzuen jardueren artean, ia guztiek afiliatuen kopurua igo dute urte arteko terminoetan, baina merkataritzak, pisu gehien duten adarretako bat baita, bi hileko eman ditu hazkunderik gabe. Aitzitik, zerbitzu publikoei lotutako jarduera batzuek oso modu esanguratsuan handitu dute beren enplegua. Esate baterako, afiliazioa hezkuntzan %3,8 gehitu zen eta osasun arloan, berriz, %3,4. Eremu pribatuko beste adar batzuek ere aldeko bilakaera erakutsi zuten. Haien artean, informazioa eta komunikazioak (%4,7) eta jarduera artistikoak (%3,9) aipatuko dira, beste batzuen artean.

Lanpostuen etengabeko sorrerak eskatzaile berriak erakarri ditu lan merkatura eta biztanleria aktiboa %0,8 areagotu zen iazko laugarren hiruhilekoan. Partaidetzaren igoerak langabeziaren jaitsiera geldiagotu du, baina, hala eta guztiz ere, murrizketa garrantzitsua izan zen urte osoan zehar. Hain zuzen ere, langabezia tasa %10,2 izan zen laugarren hiruhilekoan, 2017ko epealdi berean zegoena baino ia puntu oso bat txikiagoa. 2018ko amaieran aurreko urtean baino 8.500 lagun gutxiago zeuden lanik gabe. Horrek esan nahi du urte arteko beherakada %7,4 izan zela, oso balio esanguratsua baita. Antzeko murrizketa gauzatu zen bi generoetan, zeren eta 4.100 gizon eta 4.400 emakume gutxiago baitzeuden lanik gabe.

Barne eta kanpo eskaria

EAEko BPGak laugarren hiruhilekoan izan zuen moteltzea kanpo eskaritik etorri zen osorik, barne eskariak aurreko hiruhilekoko sendotasunari eutsi zion bitartean. Are gehiago, bizitasun hori zertxobait handitu zuen. Izan ere, barne eskariak %2,6ko urte arteko tasa jaso zuen, hirugarren hiruhilekoan baino hamarren bat gehiago. Aitzitik, kanpo eskariak jokaera neutroa erakutsi zuen hirugarrenean, baina laugarrenean hiru hamarren kendu zizkion hazkundeari. Eraitza horren azpian, oro har, nazioarteko merkataritzak bizi duen geldialdia dago, neurri batean ekonomia batzuek ahultasuneko egoera batean daudelako eta, beste aldetik, hainbat gaitan, hala nola Brexiten eta AEBek Txinari ezarriko dizkion muga zergetan, akordiorik lortu ez izanak eragin duen

ziurgabetasunagatik. Ziurgabetasuneko giro horren ondorioz, EAEko esportazioak %0,3 bakarrik hazi ziren termino errealetan aipatu den epealdi horretan, inportazioek beren hazkunde tasa %0,6ra mugatu zuten bitartean.

Barne eskariaren hobekuntza txikia beraren bi osagai nagusietan hauteman zen. Izan ere, azken kontsumoak bi hamarrenetan hobetu zuen aurreko emaitza, urte arteko tasa %2,2an utzi arte, eta kapital eraketa gordinak %4,1eko gehikuntza eskuratu zuen, hirugarren hiruhilekoan lortutakoa baino hamarren bat gehiago. Ekonomiaren hazkunde eredu hau, non inbertsioa sendo eta erritmo iraunkor batean hazten baita, osasuntsuagoa da kontsumoa inbertsioa baino gehiago hazten den eredu baina, ekonomia eragileen zorpetze maila areagotzen ez duelako eta ekonomiaren etorkizuneko garapena ahalbidetuko duten lehiakortasuneko irabazien oinarriak finkatzen dituelako.

ESKARIAREN ALDAGAIK

Urte arteko aldakuntza tasak

	2017	2018	2017		2018		
			IV	I	II	III	IV
BPG erreala	2,9	2,8	3,0	3,1	2,9	2,6	2,4
Gastua azken kontsumoan	2,9	2,4	2,8	2,8	2,5	2,0	2,2
- Familien gastua kontsumoan	3,0	2,6	2,9	2,9	2,6	2,3	2,6
- Adminis. gastua kontsumoan	2,4	1,7	2,7	2,6	2,0	1,2	0,8
Kapital eraketa gordinak	3,3	4,1	3,7	3,7	4,8	4,0	4,1
- Ekipamendu ondasunak	3,2	4,0	3,4	4,8	6,1	2,9	2,1
- Gainontzeko inbertsioa	3,4	4,2	3,9	3,0	4,0	4,6	5,2
Barne eskaria	3,0	2,8	3,0	3,0	3,0	2,5	2,6
Esportazioak	4,7	3,0	6,8	6,7	2,9	2,2	0,3
Inportazioak	4,8	3,0	6,9	6,4	3,1	2,1	0,6

Iturria: Eustat.

Azken kontsumoaren barnean, harrigarria da kontsumo pribatuak laugarren hiruhilekoan izan zuen bizkortzea, %2,3tik %2,6ra igarota. Urrats horrek amaiera ematen dio, oraingoz behintzat, urteko zati handi batean bizi zen moteltzeari. Printzipioz, ez dirudi kontsumo pribatuaren bizkortze hori iraunkorra izango denik, zeren eta aldagai hori gero eta gehiago doituko baitzaie enpleguaren sorrerari eta soldata errealean bilakaerari, behin krisiaren urteetan geroratu zen eskaria hornituta geratu eta gero. Kontuan hartuta enplegua, hamarrenez hamarren, bizitasuna galtzen ari dela eta soldata errealak oso gutxi hazten ari direla, kontsumo pribatuak %2,0aren ingurura hurbilduko

ditu bere hazkunde tasak. Kontsumo publikoak, berriz, moteltzeko joera erakutsi zuen urte osoan zehar, laugarren hiruhilekoan %0,8ko gehikuntza tasa eskuratu arte. Hala eta guztiz ere, agregatu horren gorabeherak handiak izaten dira. Beraz, tasen apaltze hori ez da etorkizuneko joeratzat hartu behar.

Kapital eraketa gordinak, bereziki bigarren seiuhilekoan, egonkortasuneko irudia erakutsi zuen eritmo esanguratsu batean eta %4,1eko igoera jaso zuen, hala laugarren hiruhilekoan nola 2018ko batez bestekoan. Oro har, bi osagaiak txandakatu direla nabaritzen da, zeren eta ekipamendurako ondasunetan eginiko inbertsioak atzean utzi baitzituen bere gehikuntza tasa altuak laugarren hiruhilekoan %2,1eko tasa jaso arte, gainontzeko inbertsioak bere emaitzak handitu zituen bitartean, %5,2ko tasa eskuratu arte, eraikuntzaren arloan bizi den bizitasun handiari esker.

KONTSUMO ETA INBERTSIOAREN ADIERAZLEAK

Urte arteko aldakuntza tasak

	2017	2018	2017		2018		
			IV	I	II	III	IV
Kontsumoa							
Azalera eta kate handietako salmentak	1,8	1,7	1,5	3,4	1,5	-0,8	2,9
Txikizkako merkataritza indizea	0,8	0,8	0,1	0,7	-0,1	-0,8	3,3
Kontsumo ondasunen ekoizpena	2,6	0,7	2,2	-0,3	-1,6	2,0	2,7
Kontsumo ondasunen inportazioa	4,2	-3,5	7,1	-1,7	-4,7	-7,1	-0,4
Turismoen matrikulazioa	7,3	4,6	13,7	12,8	8,6	10,8	-11,3
Inbertsioa							
Ekipo ondasunen ekoizpena	-0,1	2,5	2,8	5,2	7,0	1,3	-3,3
Ekipo ondasunen inportazioa	5,5	6,5	3,1	6,3	10,6	4,4	4,7
Zamaketarako ibilgailuen matrikulazioa	7,8	18,0	15,9	7,8	38,3	25,9	3,6
Etxebizitza berrientzako bisatuak	26,7	20,3	25,9	-5,9	88,5	16,7	3,6
Lizitazio ofiziala	75,1	-26,7	252,4	75,7	1,1	-39,6	-62,7

Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak egina, Eustat, Aduana, Sustapen Ministerio, Seopan eta Trafiko Zuzendaritza Nagusiaren datuetan oinarrituta.

Ekipamendurako ondasunen inportazioak produktu horien inbertsioak bigarren hiruhilekotik bizi duen moteltzea baieztatzen du. Izan ere, iazko bigarren hiruhilekoan %10,6ko gehikuntza tasa jaso ondoren, emaitzak erdira jaitsi ziren bigarren seiuhilekoan. Ondasun horien ekoizpenak ere datu nabarmen okerragoa izan zuen, baina ekoizpen horren zati handi bat ez da autonomia erkidegoan geratzen. Beste aldetik, zama ibilgailuen matrikulazioak oso gehikuntza tasa

esanguratsuak eskuratu zituen urtearen zati handi batean, baina laugarren hiruhilekoan askoz ere txikiagoa den igoera batekin (%3,6) amaitzeko. Kasu horretan, eta ibilgailuen matrikulazioan ere bai, isurien araudi berriak salmenten egutegia baldintzatu zuen. Izan ere, salmenta asko aurreratu ziren araudi berri hori saihesteko. Eraikuntzan eginiko inbertsioari dagokionez, etxebizitza berriak eraikitzeke oniritziak, sektorearen adierazle aurreratua baitira, sendo areagotu ziren ia-ia urte osoan zehar.

Barne eskariaren sendotasuna eta kanpo merkataritzaren geldotasuna kontrajartzen dira, azken honek bere bilakaera bat-batean galgatu baitzuen urtean zehar, baina bereziki laugarren hiruhilekoan. Portaera hori eta Europan, oro har, bizi dena antzekoak dira, zeren eta Europan ere moteltzearen arrazoi nagusia esportazioen moteltzea izan baita. Beste arrazoi batzuen artean, AEBek Txinarekin dituen merkataritzako tentsioek eta Brexita bideratzeko dagoen akordio faltak erosteko erabaki batzuk geroratu dituzte eta merkataritza harremanak ahuldu. EAERI dagokionez, esportazio errealak %0,3 bakarrik handitu ziren laugarren hiruhilekoan eta inportazioak, berriz, %0,6. Bi emaitza horien ondorioz, kanpo saldoak hiru hamarrenetako ekarpen negatiboa egin zion hazkundeari, aurreko epealdietako neutraltasunari amaiera emanez.

Esportazioen bizitasun motelagoa atzerrian saldutako ondasunen datuetan ere hautematen da, 2018ko lehen hiruhilekoan bi zenbakiko emaitzak jasotzetik azken hiruhilekoko %3,7 nominala haztera igaro zirelako. Moteltzeko joera garbi hori begi bistakoa den arren, Estatutik kanpoko esportazioen guztizkoak inoizko diru kopururik gorena jaso zuen berriro, 25.500 milioi euroetatik hurbil. Zenbaki horrek %6,8 batean gainditu zuen 2017an lortutakoa. Hala eta guztiz ere, balio horren gorakadaren zati esanguratsu bat esportazioen garestitzearen ondorioa da, %6,0aren ingurukoa izan baitzen.

Esportazioen salneurrien gorakada ere esanguratsuagoa da erregai mineralen atalean. Izan ere, atzerrian saldutako erregaien balioa %16,3 handitu zen urte osoan (%15,3 laugarren hiruhilekoan), baina saldutako kantitatea %2,3 gutxitu zen. Horrek pentsarazten du produktu horien prezioa %18,6aren inguruan garestitu zela. Hain zuzen ere, Brent motako petrolioaren prezioak 2018an izan zuen gehikuntzak (%25,0) azaltzen du gorakada hori, 2017an upela 48 eurotan saltzen zen bitartean, 2018an 60 eurotara igo baitzen.

Hala eta guztiz ere, erregai mineralek ez dute esportazioek urtean zehar izan zuten moteltzea guztiz azaltzen, zeren eta 2018ko bigarren erdian portaera egonkorra erakutsi zutelako. Aitzitik, energiaren bestelako produktuek beren erritmoak moteldu zituzten laugarren hiruhilekoaren urte arteko tasa %2,3an kokatu arte. Produktu talde kaltetuena garraio materialarena izan da, lehen hiruhilekoan salmenta %13,7 areagotzetik laugarrenean %13,9ko beherakada jasotzera igaro baitzen. Salmenten iraulketa horren arrazoi nagusia isurien araudi berria indarrean sartu izana

da, diesel motoreetan eragin zuzena daukana. Aldaketa horiei egokitzeko beharrak Gasteizko Mercedes-Benz lantegia laugarren hiruhilekoko hainbat egunetan ixtera behartu zuen. Gertakari hori ekoizpenaren eta esportazioaren jaitsieran islatuta geratu zen. Oso bestelakoa izan zen beste talde batzuen bilakaera, hala nola makineria eta tresnak atalarena, urte osoan zehar aldeko bilakaera erakutsi baitzuen eta laugarren hiruhilekoan %9,3ko gehikuntza tasa eskuratu zuten. Metal arruntak eta beren manufakturek ere emaitza esanguratsuak eskuratu zituzten bai urtean zehar bai laugarren hiruhilekoan. Horrek pentsarazten du esportazioen apaltzea oso fokatuta dagoela garraio materialean.

Atzerrira esportatutako EAEko ondasunak aurreko epealdietan baino are gehiago bideratu ziren herrialde aurreratuetara, salmenta guztietatik %83,5 bereganatu zutelako. Halaber, herrialdeen bi blokeetan portaera kontrajarriak hautematen dira, ekonomia aurreratuetan %6,3 areagotu zirelako eta azaleratzen ari direnetan %7,7 murriztu zirelako. Beherakada horren oinarrian, neurri handi batean, eremu horretara bidalitako erregai mineralen esportazioak izan zuen beherakada bizia (%-90,7) dago. Aurreko hiruhilekoan ez bezala, ibilgailu automobilen esportazioak oso bilakaera negatiboa izan zuen bi eremuetan eta %20,5eko jaitsiera jaso zen eremu batean zein bestean.

ESPORTAZIOEN HELBURUA

Urte arteko aldakuntza tasak eta mila euro

	2017	2018	2018				
			I	II	III	IV	IV
GUZTIRA	10,5	6,8	10,9	6,1	6,9	3,7	6.371.886
ELGE	10,6	7,9	12,0	7,1	6,2	6,3	5.321.202
Europar Batasuna	9,4	7,7	8,5	7,8	8,2	6,3	4.217.462
Frantzia	12,4	1,6	12,4	6,0	-4,1	-7,6	987.951
Alemania	3,1	5,2	5,2	7,0	5,3	3,4	882.589
Erresuma Batua	16,6	14,5	16,0	1,8	20,8	20,6	435.721
Italia	2,1	13,8	12,3	21,7	15,7	6,2	304.093
AEB	18,5	16,4	47,1	17,7	-0,8	9,3	534.842
ELGETik kanpokoak	9,9	2,2	5,6	1,8	10,0	-7,7	1.050.684

Iturria: Eustat.

AEBen eta Europaren artean 2018an merkataritza tentsioak sortu ziren arren, herrialde horretan saldu ziren EAEko produktuen balioak oso gehikuntza tasa nabarmenak lortu zituen, %9,3 laugarren hiruhilekoan eta %16,4, berriz, urte osoko batez bestekoan. Herrialde hori finkatu da

EAEko ekonomiaren hirugarren merkatu garrantzitsuen gisa. Bi lurraldeen arteko merkataritza harremana oso baldintzatuta dago erregai mineralen salmentagatik, ekonomia horretan saltzen den guztiaren %38 produktu horiek direlako. Hala eta guztiz ere, beste produktu batzuk pisua irabazten ari dira merkatu horretan, salmentak dibertsifikatuz. Esate baterako, galdaketa manufakturek eta makineria elektrikoak gero eta pisu handiagoa dute salmenten egituran, baina ibilgailu automobilen garrantzia zertxobait gutxitu da. Laugarren hiruhilekoan, gehikuntza esanguratsuenak erregai mineralen (%8,0) eta makineria taldeen (%26,4 makina mekanikoak eta %68,1, berriz, makina elektrikoak) eskutik iritsi ziren.

Europar Batasuna da oraindik EAEko produktuen merkatu behinena, eremu horretara salmenta guztien bi herenak bideratzen direlako. Urtean zehar, bilakaera egonkorra erakutsi zuen, azken zatian moteltzeko zantzuak izan zituela, %6,3ko gehikuntza tasa bat eskuratuta. Esportazioaren egiturak produktu talde askok osatzen dute, baina ibilgailu automobilerik oso pisu handia daukate bertan, guztizkoaren %22,3 bereganatzen dutelako. Hain zuzen ere, horixe da laugarren hiruhilekoaren moteltzea protagonizatu duen arantzel kapitulua, beraien esportazioen balioa %22,1 jaitsi zelako. Diesel motorren isuriak araudi berrira egokitzeko beharra dago jaitsiera horren atzean, ustez iragankorra izango dena. Pisu handia duten gainontzeko atalek oso aldakuntza tasa positiboak eskuratu zituzten.

Diesel motoreen doikuntzak oso bereziki eragiten dio EAEk Alemaniarekin duen merkataritza harremanari, EAEko produktuen helmuga nagusia herrialde hori delako. Merkatu horretara esportatutako guztiaren ia erdia ibilgailu automobilen kapituluan sartzen da eta kapitulu horrek %25,7ko jaitsiera izan zuen urte arteko tasan neurtzen denean. Beste atal garrantzitsu batzuek ere emaitza onak lortu zituzten, baina ez ziren nahiko izan jaitsiera hori konpentsatzeko. Beraz, herrialde horretan saldutakoak aurreko hiruhilekoaren jaitsiera areagotu zuen %-7,6ra arte. Izan ere, galdaketa eta bere manufakturek, guztizkoaren %16,7 biltzen baitute, %20,0tik gorako gehikuntza eskuratu zuen. Makineria mekanikoak ere oso emaitza gogoangarria (%31,8) lortu zuen.

Frantziaren eta Alemaniaren kasuak antzekoak dira, zeren eta Frantzian ere ibilgailuen salmenta oso nabarmen (%-23,9) gutxitu baitzen, pisua daukaten gainontzeko kapituluek gehikuntza esanguratsua eskuratu zuten bitartean. Hala ere, herrialde horretan ibilgailu automobilerik salmenta guztien %16,0 bakarrik bereganatzen du eta, horren ondorioz, laugarren hiruhilekoaren esportazioen emaitza %3,4ko gorakada izan zen, aurreko hiruhilekoaren tasetara iritsi gabe. Azpimarratzekoa da erregai mineralen bilakaera ona (%26,9), galdaketarena (%12,0tik gorakoa) eta makineria mota guztiena (%20,0tik gorakoa).

Brexitaren negoziazioak sortu duen ziurgabetasunak Erresuma Batuan erosketak aurreratzeko joera eragin duela ematen du, zalantza beterrik egon daitezkeen etorkizuneko eszenategiak saihesteko. Hain zuzen ere, herrialde horretan saldutakoa %20,0tik zertxobait gorago hazi zen bigarren hiruhilekoz jarraian. Nabarmenezkoa da burdinaren eta altzairuaren galdaketak lortu duen bultzada sendoa (%85,8). Makineria mekanikoak ere emaitza onak izan zituen (%6,4), baina herrialde horretan ere ibilgailu automobilen salmentak gutxitu ziren (%-15,0).

Italiak bat egiten du Europako beste herrialdeen eredu orokorrarekin, ibilgailu automobilen salmenta nabarmen gutxitu zelako (%-18,6) eta beste kapitulu garrantzitsu batzuen hazi zelako. Azken horien artean, kautxua eta bere manufaktura azpimarratu behar da, salmentak %21,6 areagotu zituelako. Burdinaren eta altzairuaren galdaketak %23,2ko igoera jaso zuen, galdaketa manufaktura %63,2ko tasa eskuratu zuten bitartean. Aurreko guztiaren ondorioz, %6,2ko hazkundea izan zuen laugarren hiruhilekoan eta %13,8, berriz, urteko batez bestekoan. Zenbaki horiek oso esanguratsuak dira atzeraldian dagoen ekonomia batentzat.

Azaleratzen ari diren herrialdeei saldutakoa %7,7 murriztu zen. Arrazoi nagusiak erregai mineralen beherakada (%-90,7), aurreko urteko Marokora eta Maltara eginiko salmenta ezohikoa berritu ez zelako, eta ibilgailu automobilen jaitsiera (%-20,5) dira, egitura horretako bi kapitulu garrantzitsuenetarikoak baitira. Galdaketa manufaktura (%0,9) eta makineria elektrikoan (%10,7) lortutako hobekuntzak ez ziren nahiko izan jaitsiera horiek konpentsatzeko.

Garapen bidean dauden herrialdeen artean, Txinak EAEko produktuen erosketak %26,2 gutxitu zuen, neurri handi batean makina eta tresna mekanikoen jaitsieragatik (%-30,5), kapitulu horrek gutzitzaileen herena baino gehiago biltzen duelako. Brasileraren esportatutakoa %9,5 murriztu zen laugarren hiruhilekoan, erregaien salmentarik ez zelako egin eta makineria gutxiago bidali zelako. Azkenik, Errusian (%-19,6) esportazioaren beherakada ibilgailuen (%-31,3), makineriaren (gutxi gorabehera %-20,0) eta kautxuaren (%-26,0) ondorioa da.

Oro har, inportazioek aurreko hiruhilekoaren bizitasunari eutsi zioten eta %10,6 hazi ziren. Diesel motoreen araudi berrira egokitzeko beharrak garraio materialaren erosketan ere eragina izan zuen (%-14,6), baina gainontzeko produktuek, eta bereziki erregai mineralen inportazioak (%24,8), murrizketa hori konpentsatu zuten.

Inportazioen gorakada herrialde garatuetan (%6,7) zein azaleratzen ari diren ekonomietan (%19,3) gauzatu zen. Erritmo aldakuntza erregai mineralak azaltzen dute. Arrazoia ez da inportazioaren jatorria aldatu dela, baizik eta pisu askoz ere handiagoa dutela garapen bidean dauden herrialdeetan erositako egituran.

INPORTAZIOEN JATORRIA

Urte arteko aldakuntza tasak eta mila euro

	2017	2018	2018				
			I	II	III	IV	IV
GUZTIRA	20,5	8,8	2,9	8,7	13,1	10,6	5.261.418
ELGE	17,8	4,4	1,5	4,6	4,9	6,7	3.492.963
Europar Batasuna	13,4	-0,8	-6,0	2,7	3,4	-2,1	2.630.929
Frantzia	6,8	4,9	4,8	11,5	4,3	-0,5	724.433
Alemania	12,0	5,6	11,9	14,5	0,6	-3,2	485.173
Erresuma Batua	62,8	-43,0	-57,0	-42,2	2,6	-45,6	133.626
Italia	7,7	6,9	11,9	9,0	10,4	-2,5	243.830
AEB	18,8	13,5	0,8	-30,4	25,8	51,1	207.632
ELGETik kanpokoak	26,9	18,4	6,4	17,0	30,6	19,3	1.768.455

Iturria: Eustat.

Herrialde garatuen emaitzetan, azpimarratzekoa da Europako herrialdeetan erositako inportazioen jaitsiera, AEBetan gorakada bizia gertatu zen bitartean. Azken kasu horretan, bultzada makineria eta tresna elektrikoak kapitulutik iritsi da. Atal horrek pisu handia dauka eta erosketak %78,9 areagotu ziren. Orobat, hazien ezohiko erosketa bat nabarmendu behar da, herrialde horretatik inportatutako guztiaren %45,7 izan zelako. Beste muturrean, Erresuma Batutik ekarritako inportazioak ia erdira murriztu ziren (%-45,6), petrolio handi ekarri beharrean, Norvegiatik eta Belgikatik inportatu zelako. Europako gainontzeko herrialde nagusiek ere gutxiago saldu zuten EAEn, baina jaitsiera horiek mugatuagoak izan ziren. Alemaniaren kasuan, jaitsiera hori lotuta dago ibilgailu automobilekin (%-26,1). Aitzitik, Frantzia eta Italian inportazioen jaitsiera burdinaren eta altzairuaren galdaketan eta makinerian gauzatu ziren nagusiki.

Esportazioen eta inportazioen arteko aldeak 1.110 milioi euroko merkataritza saldoa utzi zuen laugarren hiruhilekoan, EAEn aldekoa. Zenbaki hori eta aurreko hiruhilekoan lortutakoa nahiko antzekoak dira. Saldo energetikoa negatiboa izan zen eta 775 milioi euroetara iritsi zen. Beste aldetik, energiaz bestelako saldoa positiboa izan zen eta 1.885 milioi eurotan kokatu zen. Ohikoa denez, herrialde garatu behinenekin merkataritza superabita lortu zen, Japoniarekin izan ezik. Garapen bidean dauden herrialdeekin, ordea, EAEk defizita izan zuen. Lehen kasuan, superabita 1.828 milioi euroetara iritsi zen eta bigarrean, defizitaren tamaina 718 milioi eurotako izan zen.

Prezioak, soldatak eta kostuak

Prezioen portaera aztertzen duten adierazle guztiek igoera motelagoak erakutsi zituzten 2018ko azken laurdenean. Esate baterako, BPGaren deflatoreak, bi hiruhilekoz jarraian hazkundea areagotu ondoren, urte osoko baliorik apalenak erakutsi zituen azken hiruhilekoan, %0,7ko tasa batekin, hots, aurreko hiruhilekoaren emaitza baino sei hamarren gutxiagorekin. Moteltze horren azpian, batez ere, kontsumo pribatuaren eta kapital eraketa gordinaren deflatoreen bilakaera dago, hurrenez hurren, bost eta lau hamarren gutxitu zutelako beren tasa. Aitzitik, kontsumo publikoaren deflatoreak oso nabarmen gehitu zuen bere igoera, %1,0tik %3,4ra urte arteko tasan.

Kontsumoko prezioei dagokienez, KPI indizeak goranzko norabidea marraztu zuen 2018ko lehen hamar hilekoetan, urte hastapenean %1aren inguruko urte arteko tasak jasotzetik maiatzetik urrira doan epealdian %2tik gorako tasak eskuratzera igarota. Harez geroztik, igoera tasak leundu dira ondorengo hilekoetan. Bilakaera horren arrazoi ia bakarra energiaren bilakaera da, azarora arte gehikuntza tasa nabarmenak jaso zituelako, baina geroztik norabide neurritsuagoa erakutsi zuen, gorabeherak nozitu bazituen ere. Adierazle horren azken datu argitaratuak %1,3an kokatu du indize orokorraren urte arteko tasa, Europako Banku Zentralak erreferentziatzen jotzen duen %2,0 hartatik urrun.

KONTSUMOKO PREZIOEN INDIZEAREN BANAKETA

Urte arteko aldakuntza tasak eta ekarpenak

	2017	2018	2018		2019	Ekarpena
			III	IV	Otsaila	
Inflazio osoa (%100)	2,0	1,6	2,2	1,6	1,3	1,3
Azpiko inflazioa (%81,4)	1,1	0,9	0,9	0,9	0,7	0,6
- Elikagai landuak (%13,6)	0,0	0,9	1,0	0,5	0,7	0,1
- Industria ondasunak (%24,8)	0,3	-0,1	0,0	0,0	-0,1	0,0
- Zerbitzuak (%43,0)	1,7	1,5	1,4	1,6	1,3	0,5
Hondar inflazioa (%18,6)	6,5	4,6	8,0	4,4	3,9	0,7
- Landu gabeko elikagaiak (%7,6)	3,7	2,9	3,8	2,1	2,9	0,2
- Energia (%11,0)	8,2	5,9	11,3	6,1	4,6	0,5

Iturria: INE.

Brent motako petrolio upelaren salneurriak 86 dolarren langa gainditu zuen irailaren amaieran, baina beherakada sakona jaso zuen 2018ko azken hiruhilekoan 50 dolarren inguruko balioetara itzulita. Geroztik, berriro hartu du goranzko bidea. Petrolioaren prezioak erakutsi duen lurrunkortasuna eskaintzaren aldakuntzek eragin zuten, interes kontrajarriek bultzatuta. Alde batetik, LPEEko herrialde kideek eta beren bazkideek ekoizpena murriztu zuten lehengai horren salneurria gorarazteko. Kontrako zentzuan, AEBek ekoizpena handitzeko apustua egin dute, *fracking* teknikari esker.

Horiek horrela izanda, inflazioak datozen hilekoetan izango duen bilakaera, neurri handi batean, petrolio gordinaren prezioa gorantz edo beherantz bultzatzen duten faktoreen portaerak baldintzatuko du. Baldintzatzaile horien artean, honako hauek azpimarratu behar dira: petrolioak duten herrialdeen arteko akordioak, Irani jarritako bahimenduaren eragina, eskari globalaren oraingo apaltzea, lehenago aipatu den *shale oil* erauzketa handitzea eta LPEEkoak ez diren herrialde batzuetan eta beren aliatuetan egingo diren inbertsio egitasmoak.

EAE-KO KONTSUMOKO PREZIOEN INDIZEA

Urte arteko aldakuntza tasak

	2017	2018	2018				2019
			I	II	III	IV	Otsaila
Indize orokorra	2,0	1,6	0,9	1,8	2,2	1,6	1,3
Janariak eta alkohol gabeko edariak	1,2	1,5	1,2	2,2	1,8	0,9	1,5
Edari alkoholdunak eta tabakoa	1,7	2,2	1,5	2,4	2,7	2,0	1,4
Jantziak eta oinetakoak	0,7	1,1	0,6	1,3	1,2	1,0	0,9
Etxebizitza, ura, elektrizitatea, gasa	3,7	2,6	0,0	2,0	4,9	3,3	1,1
Etxeko hornidura	-0,3	0,3	-0,3	0,4	0,4	0,7	0,6
Medikuntza	1,1	0,2	0,2	0,1	0,1	0,4	0,1
Garraioa	4,3	3,4	1,5	4,2	5,2	2,7	3,4
Komunikazioak	1,3	2,4	1,8	2,6	2,7	2,2	1,6
Aisia eta kultura	1,9	-0,4	0,2	-0,1	-1,2	-0,5	-1,5
Irakaskuntza	1,6	1,0	1,1	1,0	1,0	0,8	0,8
Hotelak, kafetegiak eta jatetxeak	1,8	1,9	1,8	1,7	1,8	2,1	1,8
Besteak	0,7	0,7	0,2	0,4	1,0	1,2	1,4

Iturria: INE.

Beste aldetik, azpiko inflazioak nahiko bilakaera egonkorra eta balio neurritsuetan erakutsi zuen berriro. Are gehiago, azken hilekoetan jaitziera txiki bat ezagutu zuen. Zehazkiago adierazita, 2018ko amaieran urte osoko baliorik txikienak eskuratu zituen, %0,7an kokatuta. Tasa horri eutsi

dio 2019ko lehen bi hilekoetan ere. Azpiko inflazioaren moteltzea berau osatzen duten talde gehienen urte arteko tasaren jaitsierak eragin zuen, salbuespen bakarra landutako elikagaiak izan zirela. Hain zuzen ere, industria ondasunek ekarpen hutsala egin zioten azpiko inflazioaren gehikuntzari eta zerbitzuen taldeak, hazkundeari bost hamarren ekarri zioten arren, aurreko epealdietan baino balio txikiagotan kokatu zen.

Aitzitik, hondar inflazioak datu altuagoak erakutsi zituen, bai landu gabeko elikagaiak bai produktu energetikoak izan zituzten mugimenduek eraginda. Hala eta guztiz ere, azken talde horrek beheranzko joera etengabeak erakutsi zuen 2018ko urte osoan zehar. Hori dela eta, osagai gorabeheratsuenak urte erdialdeko tasa altuak atzean utzi zituen eta %4aren azpian kokatu zen 2019ko hastapenetan.

Analisisa KPIa osatzen duten taldeetan fokatzen bada, etxeetarako oinarrizko zerbitzuekin lotura dutenak dira 2019ko otsailean, argitaratu den azken hilekoa baita, gehien apaldu zirenak, hala nola argindarra, alokairua eta telefonia zerbitzuak. Horren ondorioz, komunikazioak eta etxebizitza taldeek 2018ko zatirik handiengan jaso zituzten %2tik gorako tasak atzean utzi zituzten. Aldi berean, garraioaren taldeak alderantzizko norabidea hartu zuen, iazko amaieran izan zituen gutxieneko balioetatik urrunduz eta berriro igoera handiena duen taldea izanez, petrolio upelaren salneurriak berriki bizi duen gorakadak baldintzatuta.

KPIarekin gertatu den bezala, industriaren salneurriak ere baldintzatuta geratu ziren petrolio gordinaren prezioak izan zuen bilakaerarekin. Adierazleak beheranzko joera erakutsi zuen urtea amaitu arte, baina harez geroztik gorantz egin zuen berriro eta 2019ko otsailean %2,2an kokatu zen. Energia alde batera utzita (%6,6 igo zen urte arteko tasan), gainontzeko osagaiek tasa neurritsuak jaso dituzte eta ia ez dute inolako presiorik egiten inflazioan. Are gehiago, kontsumoko ondasunek zertxobait jaitsi zituzten prezioak 2018ko otsailaren aldean (%-0,3).

Analisisa hitzarmen kolektiboetan fokatuta, beraien bilakaerak goranzko joera etengabea markatzen du eta aurreko urteetan sinatutako hitzarmenetan %1,9ko igoera adostu da, aurreko izenpetutakoetan igoera hori %2,2ra iritsi den bitartean. Beraz, azken urteetako mailarik gorenetan daude. Erregistro horrek oso nabarmen gaintitzen du KPIaren 2018ko abenduko datua (%1,0) eta bat egiten du Negoziazio Kolektiboaren Akordioak ezarri zituen ildoekin, %2aren inguruko soldata igoerak gomendatzen zituelako.

Azkenik, INEk argitaratzen duen lan kostuen estatistikak soldaten goranzko bilakaera baieztatzen du, jadanik sei hiruhilekoz jarraian hazkundeak zenbatetsi dituelako. Hala ere, lan kostu horietatik eratortzen diren tentsio inflazionistak oraindik oso motelak dira. Hain zuzen ere, soldaten

suspertze mailakatu hori %3,1ean kokatu zen langile bakoitzeko kostu guztietan eta %3,2an, berriz, soldata kostuen guztizkoan. Kasu batean zein bestean, EAEko emaitzak Estatu osoko altuenak izan ziren.

HITZARMENETAN ADOSTUTAKO SOLDATA IGOERAK

Urte arteko aldakuntza tasak

	2014	2015	2016	2017	2018
Indarrean dauden hitzarmenak:	0,7	0,6	1,0	1,5	1,9
- Urtean zehar sinatutakoak	0,5	0,7	1,1	1,7	2,2
Negoiazio esparruaren arabera:					
- Sektoreko hitzarmenak	0,7	0,6	1,0	1,5	2,0
- Enpresako hitzarmenak	0,6	0,6	1,1	1,5	1,6

Iturria: Lan Harremanen Kontseilua.

Hala langile bakoitzeko nola ordu bakoitzeko kostuan hautematen da 2018an amaiera eman zitzaiola soldaten geraldari eta gehikuntza esanguratsua lortu zen, %2,0aren zertxobait gaineretik. Ordu bakoitzeko soldataren urteko gehikuntza (%2,1) langileko soldatarena (%2,4) baino apur bat txikiagoa izan da, benetan lan egindako orduen kopurua igo zelako (%0,3), aurreko urtean bere horretan geratu zen bitartean.

LAN KOSTUAK

Urte arteko aldakuntza tasak

	2017	2018	2017		2018		
			IV	I	II	III	IV
Lan kostu guztiak	0,5	2,5	1,2	1,6	1,6	3,7	3,1
- Soldata kostua guztira	0,1	2,4	0,8	1,6	1,1	3,6	3,2
- Bestelako kostuak	1,6	2,9	2,4	1,7	3,2	3,8	2,8
Lan kostu guztiak orduko	0,2	2,3	0,7	5,0	-2,5	4,1	2,3
- Soldata kostua guztira	-0,2	2,1	0,3	4,9	-3,1	4,1	2,4
- Bestelako kostuak	1,2	2,7	2,0	5,1	-1,0	4,4	2,0
Adostutako lan orduak	-0,1	0,3	0,1	0,5	0,3	-0,2	0,5
Benetan egindako lan	0,0	0,3	0,4	-3,2	4,3	-0,5	0,8

Iturria: INE.

Arlo publikoa

Zerga bidezko diru bilketa 14.981,5 milioi euroetara iritsi zen 2018an. Emaitza hori serie historiko osoan lortu den altuena da eta berriro ere zerga nagusiek bultzatu zuten diru kopuru hori. Gehikuntza tasa (%3,5) aurreko urtekoa (%11,8) baino txikiagoa izan zen. Hala eta guztiz ere, garai hartako datuek portaera ezohikoa erakutsi zuten Ekonomia Itunaren Batzorde Mistoaren akordioen ondorioz, BEZ zergan diru sarrera aparta eskuratu zelako.

Aipatu diren zerga nagusiak aztertuta, guztien artean sozietateen zerga nabarmendu zen, beraren urte arteko aldakuntza tasa %32,8ra arte igo zelako. Gorakada horren arrazoia zerga horren kuota diferentzialak izan zuen gehikuntza nabarmena (%41,9) da, enpresek eskuratu zituzten mozkin handiagoei esker.

Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren (PFEZ) hazkundera ere, hori baita beste zuzeneko zerga nagusia, garrantzitsua izan zen, %5,4ko gehikuntza eskuratu zuelako. Goranzko bilakaera hori lan errendimenduaren gaineko atxikipenek erakutsi zuten hazkundera oinarritu zen eta enpleguaren sorrera zertxobait moteldu bazen ere, atxikipen horiek urte osoan zehar hazi ziren, soldaten egoerari eta batez besteko tasa efektiboari esker. Orobat, azpimarratzekoa da kapital higigarriaren errenten (%8,4) eta inbertsio funtsen (%14,6) atxikipenen igoera, azken hilekoetan nabaritu zen goranzko joera baieztatu zutelako.

Zeharkako zergei dagokienez, balio erantsiaren gaineko zergak (BEZ) hazkundera sendoena erakutsi zuen, aurreko urtekoaren aldean %7,9ko aldakuntza tasa bat eskuratu. Gehikuntza tasa horiek bi zenbakietara iritsi ziren iazko erdialdeko hilekoetan, neurri handi batean garai horretan prezioek gorantz egin zutelako.

Azkenik, zerga bereziek 2017an lortutako erritmoaren antzeko hazkundera izan zuten 2018an ere eta %2,0an kokatu ziren, talde hori osatzen duten zerga guztietan, alkoholean (%-33,2) izan ezik, oinarrituta. Gainontzekoen artean, nabarmentzekoak dira argindarraren gaineko zergaren igoera (%4,7), prezio maximotan kokatu zelako, tabakoaren lanen gaineko zergarena (%3,8) eta hidrokarburoen gaineko zergarena (%1,6), berogailuetarako gasolioaren gehikuntzaren ondorioz.

2019rako jadanik eskuragarri dagoen informazioa lehen bi hilekoetara mugatzen da eta ez da esanguratsua oraindik, baina diru bilketa %3,1 handitu dela adierazten du. Hazkundera bereziki garrantzitsua da zeharkako zergetan (%6,5), zuzeneko zergak apalago (%0,5) hazi diren bitartean, PFEZ neurritz (%1,3) igota.

ZERGA ITUNDUEN BILAKAERA (urtarrila-abendua)

Mila euro

ZERGAK	Diru bilketa		
	2017	2018	Aldakuntza %
PFEZ	5.132.194	5.407.614	5,4
- Lanaren eta lanbide jard. etekinen atxikipenak	4.767.619	4.991.342	4,7
- Kapital higigarriaren etekinen atxikipenak	166.782	180.720	8,4
- Kapital higiezinaren etekinen atxikipenak	80.996	81.905	1,1
- Ondare irabazien atxikipenak	44.768	51.306	14,6
- Loteria eta apustu jakin batzuen g/zerga bereziak	24.169	43.570	80,3
- Prof. eta enpresarien ordainketa zatikatua	158.761	168.931	6,4
- Kuota diferentzial garbia	-110.901	-110.161	0,7
Sozietateen gaineko zerga	1.111.661	1.476.010	32,8
- Kapital higigarriaren etekinen atxikipenak	166.782	180.720	8,4
- Kapital higiezinaren etekinen atxikipenak	80.996	81.905	1,1
- Ondare irabazien atxikipenak	44.768	51.306	14,6
- Kuota diferentzial garbia	819.115	1.162.078	41,9
Ez-egoiliarren errentaren gaineko zerga	33.233	32.439	-2,4
Oinordetza eta dohaintzen gaineko zerga	117.912	132.079	12,0
Ondarearen gaineko zerga	163.227	184.877	13,3
Kreditu entitateen gordailuen gaineko zergak.	24.823	24.565	-1,0
Energia elektrikoaren ekoizpenaren gaineko zerga	32.847	34.857	6,1
ZUZENeko ZERGAK GUZTIRA	6.615.897	7.292.440	10,2
BEZaren bertoko kudeaketa	3.762.184	4.059.967	7,9
Ondare eskualdatzeen gaineko zerga	144.420	160.048	10,8
Egintza juridiko dokumentatuen gaineko zerga	38.854	46.970	20,9
Garraio jakin batzuen gaineko zerga bereziak	21.733	26.073	20,0
Fabrikazioaren zerga berezia. Bertoko kudeaketa	1.689.354	1.723.267	2,0
Aseguru sarien gaineko zerga	75.694	79.140	4,6
Joko jardueren gaineko zergak	5.957	6.614	11,0
Berotegi efektuko gasen gaineko zergak	4.164	3.846	-7,6
Iraungitako zergak	-7.615	-9.404	-23,5
ZEHARKAKO ZERGAK GUZTIRA	5.734.743	6.096.521	6,3
TASAK ETA BESTE. SARRERAK GUZTIRA	106.798	118.510	11,0
BERTON KUDEATUTAKO ZERGA ITUNDUAK	12.457.438	13.507.471	8,4
BEZaren doikuntza	2.274.142	1.776.026	-21,9
Zerga berezian doikuntza	-257.652	-301.952	-17,2
ITUNDUTAKO ZERGAK GUZTIRA	14.473.928	14.981.545	3,5

Iturria: Foru aldundiak.

Arlo finantzarioa

Lurrunkortasuna eta ziurgabetasuna protagonistak izan ziren 2018ko amaieran. Ziurgabetasunaren eragileak Brexitari buruzko ziurtasun apurrak, Italiak Europako finantzekin daukan konpromiso txikia, AEBek hartu duten joera protekzionistaren ondorioak eta munduko hazkundearen sendotasunaz dauden zalantzak dira. Aurreko guztiak lurrunkortasun handia ekarri zuen, bereziki nazioarteko burtsetan eragina izan zuena, Atzeraldi Handitik bizi den abendurik okerrena izan zelako. 2019ko hastapena lasaiagoa izan da. AEBen eta Txinaren arteko merkataritza tentsioak bideratzeko negoziazioek, Fed-ek martxan jarri duen interes tasak igotzeko prozesua gelditu izanak eta Europako Banku Zentralak (EBZ) botatako kontrol mezuak 2018an galdutakoaren zati bat berreskuratzea ahalbidetu zuten.

ADIERAZLE MONETARIO ETA FINANTZARIOAK

	2017	2018	2018				2019	
			Iraila	Urria	Azaroa	Abend.	Urt.	Otsa.
Interes tasa ofizialak (%)								
Europako Banku Zentrala	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00
Erreserba Federala	1,50	2,50	2,25	2,25	2,25	2,50	2,50	2,50
Japoniako Bankua	-0,10	-0,10	-0,10	-0,10	-0,10	-0,10	-0,10	-0,10
Ingalaterrako Bankua	0,50	0,75	0,75	0,75	0,75	0,75	0,75	0,75
Txinako Banku Popularraa	4,35	4,35	4,35	4,35	4,35	4,35	4,35	4,35
Brasilgo Banku Zentrala	7,00	6,50	6,50	6,50	6,50	6,50	6,50	6,50
Alemaniako 10 urteko zor publikoarekiko aldea (oinarri puntuak)								
Espainia	114	117	104	119	120	117	106	101
Grezia	369	413	371	384	396	413	372	349
Portugal	151	147	141	150	153	147	149	129
Erresuma Batua	76	102	110	105	105	102	107	111
Italia	157	252	268	308	292	252	248	249

Iturria: Europako Banku Zentrala (EBZ) eta Espainiako Bankua.

Ziurgabetasun iraunkor horiek egon arren eta Europako ekonomia koiunturak okerrera egin zuen arren, EBZk abenduan aktiboen erosketari garrantzi handia emango ziela baieztatu zuen eta interes tasak bere horretan uzteko asmoa berretsi zuen, gutxienez 2019ko uda igaro arte. Are gehiago, interes tasak igotzeari ekin eta gero, denbora luzez jarraituko duela aktiboak erosteko egitasmoaren barruan epea amaituta duen zorraren ordainketa nagusi guztiaren dirua berriro

inbertitzen gogorarazi zuen. Denak pentsarazten du EBZk moneta politika egokitzailari atxikiko zaiola 2019an ere.

Erreserba Federalak, berriz, abenduan erabaki zuen interes tasak %2,25-%2,50 tartea arte igotzea. Igoera hori 2018an onartutako laugarrena izan zen. Orobat, berriro argitu zuen 2019an zehar bi igoera gehiago onartzea zela aurreikuspena, horrekin ziklo egokitzaila amaitutzat joz. Hala ere, urtarrileko bileran onartu zuen interes tasak igotzeko arrazoiak ahuldu zirela eta pazientziaz jokatuko duela ekonomiaren bilakaera juzgatzeko orduan, interes tasak igo behar diren edo ez erabaki baino lehen. Prentsa ohar horretan agerian uzten du 2018an erakutsi zuena baino jokaera laxoagoa hartuko duela orain. Ingalaterrako, Japoniako eta Txinako banku zentralek bere horretan utzi zituzten, oraingoz, interes tasak eta estimulu egitasmoak.

Europako zor merkatuetan, periferiako arrisku sariak baikortasunez hartu zuten Italiaren eta Europako Batzordearen arteko akordioa, eta europar ekonomia nagusiei eskatzen zitzairen errentagarritasunak beherantz egin zuen abenduan. Horri gehitu behar zaio bonu alemaniarraren ahultasuna, interes tasa egonkorreko eszenategi batean, otsailean errentagarritasuna %0,18ra arte gutxitu baitzuen. Halako maila apalik ez zuen 2016ko urritik inoiz izan. Horren ondorioz, periferiako herrialdeen arrisku sariak 2018ko uztaietan jaso ziren mailetatik hurbil egon arte gutxitu ziren 2019ko otsailean. Beste aldetik, zor estatubatuarraren arrisku saria 254 oinarri puntura iritsi zen bonu alemaniarraren aldean, abuztuaren amaieran jaso zen mailatik hurbil. Hori dela eta, beraren errentagarritasuna %2,70aren inguruan kokatu zen, balio garrantzitsua baita, baina 2018ko maximoetatik urrun dagoena, orduan %3,20tik gora zegoelako.

Sentimenduaren hobekuntza hori dibisen merkatuan ere nabaritu zen eta abenduan zehar euroak balio apur bat irabazi zuen ekonomia aurreratuen dibisen aldean. Izan ere, benetako truke tasa errealak gora egin zuen abenduan %98,4ra arte. Horrek bide eman zuen urteko balantzea %99,0an kokatzeko, 2014tik inoiz jaso duen emaitzarik onena baita. Harez geroztik, urtea aurrera zihoan eta banku zentralek beren estrategia berriak ezagutarazi zituzten neurrian, dolarrek balioa irabazi zuen dibisa nagusien aldean, gutxi euroaren aldean eta gehiago azaleratzen ari diren herrialdeetako dibisa nagusien aldean. Zehazkiago adierazita, beheranzko alborapen hori egon arren, euroa nahiko egonkor mantendu zen billete berdearen aldean eta 1,14 dolarren inguruan trukatu zen. Orobat, urtarrilean yenaren kontra galdu zuenaren zati bat berreskuratu zuen. Zehazkiago, diru bakarra, otsailean, 125,3 yenen truke ordaintzera iritsi zen. Erresuma Batuan, Brexitaren ondorioz sortu zen ziurgabetasuna areagotu izanak kalte egin zion libera esterlinari, Parlamentu britaniarraren bozketen arabera goratu edo beheratu baitzen.

Fed-ek erabaki zuen interes tasen igoerak eta gobernu estatubatuarraren itxiera partzialak arriskua saihesteko joera areagotu zuten. Hori dela eta, indize iparramerikar nagusiek negatiboan

amaitu zuten urtea. Hain zuzen ere, indize estatubatuarrak %6,0aren inguru galdu zuten, Euroguneko atzerakadak %14,0tik gorakoak izan ziren bitartean. Wall Streeteko aldi txarrak Asiako merkatuetan ere eragina izan zuen. Tokioko Nikkei 225 adierazlea %12,0 baino gehiago jaitsi zen, burtsa txinatarren beherakada %20,0ra hurbildu zen bitartean. Ibex 35-ek %15,0ko jaitziera pairatu zuen 2018ko batez bestekoan, 2010etik inoiz izan duen handiena, munduko finantza krisia pil-pilean zegoenean. Indize horrek 1.500 puntu baino gehiago galdu zituen urtean zehar, urtarrileko 10.043 puntuetatik abendu amaierako 8.539,9 puntuetara igarota. Izan ere, adierazle hori osatzen duten 35 balioetatik zortzik bakarrik amaitu zuten urtea positiboan.

ADIERAZLE MONETARIO ETA FINANTZARIOAK

	2017	2018	2018				2019	
			Iraila	Urria	Azaroa	Abend.	Urt.	Otsaila
Truke tasak								
Dolarra/euro	1,129	1,181	1,166	1,148	1,137	1,138	1,142	1,135
Yena/euro	126,7	130,4	130,54	129,62	128,79	127,88	124,34	125,28
Libera esterlina/euro	0,876	0,885	0,892	0,883	0,881	0,898	0,886	0,873
Yena/dolarra	112,2	110,4	112,0	112,9	113,3	112,3	108,9	110,4
€ efektibo nominala	96,6	99,0	99,5	98,9	98,3	98,4	97,8	97,4
Burtsa indizeak (*)								
IBEX35	7,4	-15,0	-6,5	-11,5	-9,6	-15,0	6,1	8,6
Eurostoxx-50	6,5	-14,3	-3,0	-8,7	-9,4	-14,3	5,3	9,9
Dow Jones	25,1	-5,6	7,0	1,6	3,3	-5,6	7,2	11,1
Nikkei 225	19,1	-12,1	6,0	-3,7	-1,8	-12,1	3,8	6,8
Standard & Poors	19,4	-6,2	9,0	1,4	3,2	-6,2	7,9	11,1

(*) Hazkunde metatua urte hasieratik hilekoaren azken egunera arte.
Iturria: Europako Banku Zentrala (EBZ) eta Espainiako Bankua.

Urtarrilean, inbertsoreen sentimenduaren hobekuntzak eta, batez ere AEBetan, 2018ko laugarren hiruhilekoan enpresen mozkinak nahiko positiboak izan zirela argitaratu izanak gorantz bultzatu zituzten nazioarteko burtsa indizeak. AEB eta Txina akordio batera iritsi zitezkeelako aurreikuspenak baikortasun hori otsailean zehar luzatu zuten.


Euriborrak, berriz, goranzko bideari eutsi zion. Abenduan, bederatzi hilekoz jarraian, igo egin zen eta %-0,13an kokatu zen. Halako mailarik ez zuen 2017ko maiatzetik jaso. Izan ere, indizea abenduan ia bi ehunen igo zen azaroaren aldean eta sei ehunen, berriz, 2017ko abenduaren aldean, 2014tik jaso duen gehikuntzarik gorena delarik. 2019an, joera hori aurrera doa eta

otsailen %-0,11n kokatu zen. Igoera horiek oraingoz oso eragin txikia izan dute kuotan, baina euriborrak bizi duen joera horrek aurreratzen du etxebizitza erosteko maileguek azken urteetan izan dituzten prezio baxuak amaituko direla.

Etxebizitzaren hipoteken bilakaera

Zenbatekoa (ezkerrean, milioiak) hipoteka kopurua (eskuinean, milak)

Euriborra 12 hilera



Iturria: INE eta Espainiako Bankua.

Espainiako Bankuak maileguez egiten duen inkestak seinalatzen duenez, 2018ko azken hiruhilekoan etxebizitza erosteko maileguen eskaria zertxobait gutxitu zen. INEk argitaratzen dituen hipoteken datuek joera hori baieztatzen dute. Litekeena da hipoteken zergan ordainketa nork egin behar duen erabakitzeke orduan sortu zen arazoak erosketa batzuk geroratu izana. Printzipioz, ebazpena ezagutu arte, azkenean eroslearen aldekoa izan baitzen, eta geroztik, bankuek gastu hori hipoteken kostuan sartuko ote zuten jakin arte. Kontua da 2018ko azken zatian uztailetik irailera bitartean sinatu zirenak baino 327 hipoteka gutxiago izenpetu zirela. Hala eta guztiz ere, 2017ko epealdi beraren aldean %9,5eko aldakuntza tasa jaso zen, eta gorantz egin zuen hirugarren hiruhilekoz jarraian.

Arlo pribatuak hartutako maileguen pixkanakako jaitsierak, interes tasa oraindik apalek eta kredituen merkatzeak zorpetze maila berriro gutxitzea ahalbidetu zuten laugarren hiruhilekoan. Orobat, zorraren kopurua 2006an jasotako mailara itzuli zen eta horrek lagundu zuen zorpetzeak BPGaren balioaren azpitik jarraitzea. Zehazkiago adierazita, 2018ko amaieran kredituak BPG guztiaren %89,4 ziren. Portzentaje hori 2002an eskuratutakoa (%89,9) baino txikiagoa da. Jaitsiera hori Araba, Bizkai eta Gipuzkoako familiek bere zorrak onbideratzeko egin zuten ahalegin

garrantzitsuari esker lortu zen. Izan ere, familien zorpetze maila gaur egun 2008an jaso zen maximotik %28,2 beherago dago. Horrek esan nahi du zor osoa ia 24.100 milioi eurotan murriztu dela.

Beste aldetik, arlo publikoak, 2017ko hiruhileko beraren aldean zorra handitu (%8,1) bazuen ere, sei hileko eman ditu jadanik zorpetze maila gutxituz. 2018ko bigarren hiruhilekoan zorrak 8.440 milioi euroko langa gainditu ondoren, kopuru hori gaur arte inoiz izan den altuena baita, urte amaieran zorra 7.149 milioi eurotara jaitsia zen, barne produktu gordinaren %9,3 delarik. Dena dela, oraindik bide luzea dauka krisiaren aurreko mailara itzultzeko, garai hartan zorpetzea BPGaren %2,0aren inguruan zegoelako.

Burtsa merkatuek bizi zuten amiltzearen ondorioz, inbertsio funtsen batez besteko errentagarritasuna %-4,8 izan zen 2018an. Horren ondorioz, aurreztaileek berriro banku gordailuen alde egin zuten. Finantza produktu horrek ez du interes handirik ematen, baina inbertitutako kapitala eta errentagarritasuna bermatzen ditu. Izan ere, gordailuen ordaintzen muturrak 2018an %0,03an kokatu zen ageriko gordailuek eskainitako interesen tasan eta %0,17an, berriz, bi urtetik gorako gordailuetan. Halaber, ekonomiaren hobekuntzak familien aurrezteko ahalmena handitu zuen eta horrek gordailuen beste igoera bat ekarri zuen berarekin. Izan ere, Espainiako Bankuaren arabera, 2018ko abenduan, EAEko eragileen gordailuen bolumenak, lehenengo aldiz, 81.517 milioi euroko zifra gainditu zuen, aurreko urteko datua %2,3 batean gaindituz. Milioi horietatik, 77.110 milioi euro gordailu pribatuak dira (62.000 milioi ageriko kontuetan daude).

KREDITU ETA GORDAILUAK

Urte arteko aldakuntza tasak eta milioi euro

	2017	2018	2018				Aldea 2008-IV eta 2018-IV		
			I	Milioi €	Milioi €	IV	IV	Milioi €	Tasa
Kredituak	-1,0	-3,4	-2,5	0,6	2,1	-3,4	68.467	-18.953	-21,7
Arlo publikoa	-5,5	8,1	-3,0	4,0	16,5	8,1	7.149	5.120	252,4
Arlo pribatua	-0,5	-4,6	-2,4	0,2	0,4	-4,6	61.318	-24.073	-28,2
Gordailuak	4,7	2,3	0,3	3,4	5,5	2,3	81.517	5.174	6,8
Arlo publikoa	11,2	36,6	32,6	13,6	38,8	36,6	4.407	-1.326	-23,1
Arlo pribatua	4,4	0,9	-0,9	2,9	3,9	0,9	77.110	6.500	9,2
Agerikoak	20,9	6,6	11,4	10,5	11,5	6,6	62.049	35.062	129,9
Eperakoak	-27,3	-17,3	-28,2	-18,4	-18,1	-17,3	15.061	28.562	-65,5

Iturria: Espainiako Bankua.

Aurreikuspenak

Nazioarteko erakundeek osatu dituzten ekonomia aurreikuspen berrienak aurreko hilekoetan aurkeztu zituztenak baino apalagoak dira. Consensus Forecasts-ek martxoan argitaratu dituen aurreikuspenek munduko ekonomiaren hazkunde tasa %2,8an kokatu dute bai 2019rako bai 2020rako. Epe laburrerako igurikimenean beheranzko zuzenketak orokorrak izan dira eskualde gehienetan. Txinaren berezko kalteberatasunak, Europako ekonomiaren ahultasunak, merkataritzaren eta manufakturen sektorearen moteltzeak eta finantza merkatuetan gauzatu diren arriskuek munduko ekonomiaren hazkundera ahuldu dezakete.

EKONOMIA AURREIKUSPENAK

Urte arteko aldakuntza tasak

	BPG			Kontsumo prezioak		
	2018	2019	2020	2018	2019	2020
Munduko ekonomia	3,2	2,8	2,8	2,9	2,6	2,6
AEB	2,9	2,4	2,0	2,4	1,8	2,2
Kanada	1,8	1,4	1,7	2,3	1,7	2,0
Japonia	0,8	0,7	0,4	1,0	0,7	1,0
Eurogunea	1,8	1,2	1,4	1,7	1,3	1,5
Europar Batasuna	1,9	1,4	1,5	1,8	1,6	1,7
Alemania	1,4	1,0	1,5	1,8	1,5	1,6
Espainia	2,5	2,2	1,9	1,7	1,3	1,5
Frantzia	1,5	1,3	1,3	1,9	1,3	1,5
Herbehereak	2,5	1,6	1,6	1,7	2,2	1,7
Italia	0,9	0,1	0,6	1,2	0,9	1,2
Erresuma Batua	1,4	1,3	1,5	2,4	2,0	2,1
Asia eta Ozeano Barea	4,7	4,5	4,4	2,0	1,9	2,1
Ekialdeko Europa	3,3	2,0	2,6	6,3	6,6	5,5
Amerika Latinoa (Venezuela ezik)	1,5	1,9	2,6	9,5	7,2	5,9

Iturria: Consensus Forecasts (2019ko martxoa).

Munduko bi ekonomia nagusiei dagokienez, AEBetako ekonomia %2,4 haziko da 2019an eta zertxobait motelduko da 2020an, %2,0ra arte, Consensus Forecasts-ek egin duen aurreikuspenaren arabera. Hazkundera oraindik bizia izango den arren, ekonomia estatubatuarra moteltzeko joera batean sartuko da, politika makroekonomikoa murriztaileagoa izango den heinean. Familien kontsumoak gora egingo du, enpleguaren eta soldaten igoerak bultzatuta. Enpresen inbertsioa areagotuko da, zergetan ezarri diren erreformek eta finantzaziorako baldintza

hobeezinek bultzatuta. Bizitasuna galgatuco duten faktoreak munduko ekonomiaren ahultasuna eta merkataritza alorrean hartutako neurriak dira.

Beste aldetik, ELGEk aurreikusi du Txinako ekonomia %6,2 haziko dela 2019an eta %6,0, berriz, datorren urtean. Hazkunde aurreikuspenak neurritsuak dira eta ahultasuneko seinaleak industriaren ekoizpenetik, merkataritzako fluxuetatik eta azpiegiturretan eginiko inbertsioen murrizketetatik iristen dira. Faktore horiek konpentsatzeko eta barne eskariari bultzada bat emateko, zerga eta moneta politika hedakorrek hartuko direla aurreikusten da. Asiako ekonomia nagusiak oraindik egin gabe daukan egitekoa egiturazko erreformak abiatzea da.

Consensus Forecasts-en arabera, Euroguneko hazkunde tasa %1,2an kokatuko da 2019an eta zertxobait areagotuko da 2020an, %1,4ra iritsi arte. 2019ko tasak beheranzko zuzenketa ekarri du aurreko txostenetan argitaratu ziren aurreikuspenen aldean. 2019rako aurreikuspenak ez dira orain lehen bezain baikorrak, 2018ko hazkunde tasa espero zena baino apalagoa izan zelako eta ekonomia jarduera sustatzen zuten koiunturako faktore batzuk desagertu direlako. 2020an, estatu kide batzuetan eskaintza murrizketak eta kanpo eskari ahula aurreikusten dira. Europako ekonomiaren ganean hautematen diren bi ziurgabetasun nagusiak honako hauek dira: alde batetik, kanpotik etorria, harreman aldeaniztunen etorkizuna eta, beste aldetik, barruan sortua, Europar Batasunaren eta Erresuma Batuen arteko harremanak hemendik aurrera nolakoak izango diren jakitea. Brexitaren emaitzak eragina izango du finantza merkatuetan eta inbertsioan. Halaber, akordiorik ez balego, eragina merkataritza harremanetan eta ekonomia jardueran are handiagoa izango da. Europako herrialde batzuetan bizi den ezegonkortasun politikoa ere arrisku garrantzitsu bat da munduko ekonomiaren etorkizunarentzat. Europako Banku Zentralari dagokionez, erakunde horrek ezarri duen moneta politikak finantzaziorako baldintza egokiak eta euroaren balio nahiko egonkorra bermatuko ditu.

Espainiako ekonomiak moteltze arineko joera erakutsiko du 2018an jasotako hazkundearen aldean. Consensus Forecasts-ek zenbatetsi duenez, aldakuntza tasa %2,2 izango da 2019an eta hazkundea %1,9ra apalduko da datorren urtean. Beste aldetik, CEPREDEK %2,3ko gehikuntza tasa kalkulatu du 2019rako eta %2,1koa, berriz, 2020an. Hazkundea motelduko da, baina lortuko diren gehikuntza tasak ez dira %2,0 baino txikiagoak izango. Hazkundea barne eskarian oinarrituko da, kanpo arloaren ekarpena negatiboa izango den bitartean. Beste arrazoi batzuen artean, apaltzearen oinarrian munduko hazkundearen moteltzea, fluxu turistiko txikiagoak eta krisiaren ondoren geroratu zen kontsumoa agortu izana daude. Hala eta guztiz ere, gehikuntza tasa sendoa aurreikusten da, interes tasak bere horretan mantenduko direlako eta politika ekonomikoa hedakorragoa izango delako.

Lan merkatuaren aldagaiei buruzko aurreikuspenek bi urteetan enpleguaren hazkunde erritmoa sendoa izango dela erakusten dute. CEPREDEk lanaldi osoko lanpostu baliokideen gehikuntzaz aurkeztu duen zenbatespena %1,9an kokatu da 2019. urtean. Datorren urterako, %1,7ko igoera aurreikusten du. Beste aldetik, langabezia tasa beherantz berrikusi da eta 2019an %14,0an kokatuko dela espero da, 2020an %12,9ra jaisteko.

ESPAINIARAKO AURREIKUSPENAK HIRUHILEKOKA (2019ko martxoa)

Urte arteko aldakuntza tasak

	2019				2019	2020
	I	II	III	IV		
BPG	2,4	2,3	2,3	2,1	2,3	2,1
Kontsumo pribatua	2,1	2,1	2,0	1,9	2,0	1,8
Kontsumo publikoa	2,9	2,6	2,2	1,8	2,4	2,5
Kap. finkoaren eraketa gordina	4,4	3,9	4,2	3,9	4,1	4,8
- Inbertsioa ekipamenduan	4,0	1,9	2,5	2,6	2,7	5,1
- Inbertsioa landutako aktibotan	10,7	11,4	11,3	7,8	10,3	7,1
- Inbertsioa eraikuntzan	4,7	4,9	5,1	4,6	4,8	4,7
Barne eskaria	2,8	2,5	2,3	2,1	2,4	2,6
Esportazioak	2,1	2,9	4,0	4,3	3,3	3,9
Inportazioak	3,3	3,4	4,2	4,3	3,8	5,6

Iturria: CEPREDE.

Ingurune makroekonomikoaz eskuragarri dagoen informazioa eta EAEko ekonomiaren beraren adierazle eguneratuak erabilita, Eusko Jaurlaritzako Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak EAEko ekonomiaren 2019rako taula makroekonomikoa berrikusi du eta hamarren bat gutxitu du hazkunde tasa. Orobat, 2020rako datuak aurkeztu ditu. Aurreikuspen ariketa horren emaitzek seinalatzen dutenez, 2019ko batez besteko gehikuntza tasa %2,2 izango da eta datorren urtean ekonomiaren hazkundera zertxobait apalduko da, %2,0ra arte. Zenbatespenak iradokitzen du BPGaren hazkundera maila onargarrian ibiliko dela hiruhileko arteko tasan, %0,4aren eta %0,7aren artean. Halere, munduko ekonomian gertatzen den bezala, etorkizuneko erritmoaz dagoen ziurgabetasuna areagotu da azken hilekoetan.

EAEko ekonomiaren hazkunderaren bultzagilea barne eskaria izango da berriro. Osagai horrek, 2018an baino gutxiago bada ere, bizitasun esanguratsua erakutsiko du eta BPGaren hazkunderari 2,5 puntu ekarriko dizkio 2019an eta 2,3 puntu, berriz, 2020an. Familien kontsumoa zertxobait

apalduko da, baina indartsu jarraituko du, familien errenten hazkundeari esker, gutxieneko soldatak, soldata publikoek eta pentsioek lagunduta. Inbertsioa goranzko ibilbide batetik hedatuko da, enpresarien konfiantzak ematen duen aldeko inguruneak lagunduta. Finantzaziorako baldintza onek eta interes tasa apalek neurri batean konpentsatuko dute aurreikuspen globalen okertzea. Kontuan hartu den biurtekoan, barne eskariaren ekarpena iraunkorra eta esanguratsua izango da, baina kanpo eskariak ekarpen negatibo txikia, egingo dio BPGaren hazkundeari, hala 2019an nola 2020an. Kanpo eskariak hiru hamarren kenduko dizkio hazkundeari, EAEko esportazioak gutxiago haziko direlako, kanpo testuingurua okertu delako.

EAE-KO EKONOMIARAKO AURREIKUSPENAK HIRUHILEKOKA (2019ko martxoa)

Urte arteko aldakuntza tasak

	2019				2019	2020
	I	II	III	IV		
BPG	2,1	2,3	2,2	2,2	2,2	2,0
Azken kontsumoa	2,0	2,2	2,0	2,1	2,1	1,9
Kontsumo pribatua	2,2	2,3	2,1	2,1	2,2	1,9
Kontsumo publikoa	1,3	1,5	1,6	1,9	1,6	1,7
Kapital eraketa gordina	3,3	3,5	3,7	3,5	3,5	3,7
Barne eskariaren ekarpena	2,4	2,6	2,5	2,5	2,5	2,3
Kanpo saldoaren ekarpena	-0,3	-0,3	-0,2	-0,3	-0,3	-0,3
Lehen arloa	-9,9	-8,5	-9,9	-8,6	-9,2	-1,5
Industria eta energia	1,1	1,9	1,8	2,0	1,7	1,9
Eraikuntza	4,5	4,0	3,7	3,4	3,9	2,7
Zerbitzuak	2,6	2,6	2,5	2,3	2,5	2,2
Balio erantsi gordina	2,2	2,4	2,3	2,2	2,3	2,1
Ekoizkinen gaineko zergak	1,9	2,1	2,0	1,9	1,9	1,7
BPGaren deflatorea	1,1	1,4	1,4	1,6	1,4	1,8
Enplegua	1,7	1,6	1,6	1,4	1,5	1,3
Langabezia tasa	10,4	10,0	9,6	9,8	9,9	9,7

Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritza.


Analisia jarduera adarretan fokatuta, hazkundera orokorra izango dela aurreikusten da, salbuespena nekazaritza eta arrantza biltzen dituen lehen arloa delarik, beti gorabeherak izaten baititu. Lehen arloak ekarpen negatiboa egingo dio balio erantsiaren hazkundeari bai 2019an bai 2020an. Beste aldetik, industriaren aldakuntza tasa %1,7an eta %1,9an kokatuko da kontuan

hartu diren bi urteetan. Eraikuntzak bizitasun handiena lortuko du eta tasa esanguratsuak kateatuko ditu hiruhilekoz hiruhileko. Azkenik, zerbitzuek hazkunde egonkorra eta iraunkorra lortuko dute. Hurrenez hurren, zerbitzuen batez besteko tasak %2,5ean eta %2,2an kokatuko dira 2019an eta 2020an.


BPGaren hazkundera eragin positiboa ekarriko dio lan merkatuari, enplegua goraraziz eta langabezia tasa gutxituz. Lan merkatuarekin zerikusia duten aldagaien aurreikuspen berriek enpleguaren %1,5eko gehikuntza islatu dute 2019rako eta %1,3koa, berriz, 2020rako. Datu horiek esan nahi dute 15.000 lanpostu inguru sortuko direla 2019an eta 12.500 enplegu inguru, berriz, 2020an. Beste aldetik, langabezia tasa %9,9an kokatuko da 2019an eta %9,7ra jaitsiko da 2020ko batez bestekoan, aurreikuspen horren arabera.

2019ko eta 2020ko aurreikuspenak Urte arteko aldakuntza tasak

Aurreikuspen panela 2019



Aurreikuspen panela 2020



Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritza, CEPREDE (2019ko otsaila), BBVA (2019ko otsaila), Confebask (2018ko abendua), Laboral kutxa (2018ko abendua), Funcas (2018ko azaroa) eta HISPALINK (2018ko abendua BEGren aldakuntza).

Eusko Jaurlaritzaren 2019rako eta 2020rako aurreikuspen ekonomiko berriak erdiko tokian kokatzen dira EAEko ekonomiarentzat beste erakunde batzuek argitaratu duten aurreikuspenen artean. Izan ere, 2019rako, beheko muturrean Ceprederen hazkunde aurreikuspena (%1,8) dago eta goiko muturrean Funcasek eta BBVAK eman duten %2,7. 2020rako, oraingo aurreikuspenak Ceprederen %1,8aren eta BBVAren %2,3aren artean daude.